

anaitasuna

1.978.EKO ABENDUAREN 15EKOA 374. ALEA. 50 PZTA.

17.



HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea




BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen

AURKIBIDEA



3. Aurkibidea.
4. Editoriala
5. Diskoak Hamabostero. Karlos Arko.
6. Erreferendumaren ondoren. J. Idigoras. (Konstituzioren gaitzesteak Euskal Herrian sortutako ondorioetaz.
8. Adio konstituzio. Txepetxa.
9. Barragarria izandu zen. J. Agirreazkuenaga (Aurrago, zelan agerturiko Alexen Herri Batasuna eta EAJko neokarlistak artikuluari erantzunez.
10. Estatuaren terrorismoa konstituzionaldurik. Alex. (Arrasateko azken gertaera latzek argi erakutsi dute Estatuaren terrorismoaren irudi odoltsua).
11. Berriz ere zigorpean. Mendizabal. (Orain hiru urte legez, errepresioa nagusituz doa Euskal Herrian).
12. Zan-zen Euskadin (Jarraipena). Borja Barandiaran.
14. Hamabost egun hankaz gora. Iñaki Zabaleta eta Begoña Zia.
16. Ohar laburra.
18. Hemen eta han berdin da. M.J. Esteban (Bretoindarren burrukak ere erakarri du berengana frantses estatuaren errepresioa).
20. Masak eta Eliteak. Galtzagorri. (Prozesu iraultzaile batetan masei dagokien protagonismoaren garrantziaz).
22. Emakume bertsolari batekin elkarrizketan M. A. Landa.
24. Kontseilu Nagusiaren euskotasunaz X. Kintana. (Zergatik eusko eta ez euskal?. eusko hitzaren jatorri eta zentzu arrazistaz).
27. Etiopia. Andolin Eguzkitza (Bernardo Atxagaren obra honetaz egindako kritika.)
29. U.E.Uren berriak. Martín Orbe (1979.ko euskal unibertsitate-rako programa).
30. Pretty Baby neskato polita. Joseba Sarrionaindia.
32. Fisikari euskaltzale batekin hizketan. Ramon Garai (Begoña Zurimendi Abalde-i, euskaldun ikasia eta euskarazko tesina baten egileari egindako elkarrizketa).
34. STE-EILAS. Eukene (Irakaskuntzako sindikatu honen arduradunarekin berbetan.
35. GIZAKI. gentz
36. Moda osasuntsu bat (Marathoiak ugaltzen ari zaizkigu euskal herriko bazter guztietan. Honetan Bermioko Sanmarthonez zenbait gogoeta).
37. Medikuntza eta kirola. J.M. Arzubiaga (Kirolaren praktikan ematen ari den gorakadaz honi aplikatzeko medikuntza egoki baten premia nabari da.
39. Komikia. Xabier Etxenike.
40. Gramatika. Zenbakien erabilera (1). J.R. Etxebarria.
41. Gurutzegramak. Larry Trask.
42. Kaleko eta Labyrinthoa.



KOORDINAKETA

J.R. Etxebarria

ERREDAKZIOA

J. Llerandi, T. Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA

J. Agirreazkoenaga, M. Alvarez, B. A-txaga, J. R. Etxebarria, X. Kintana, E. Knör, J. Idigoras, J. Llerandi, E. Martin, T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta.

ARABA

E. Knör

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

T. Trifol, M. Alvarez, A. Eskisabel, M.J. Esteban

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealday, A. Eguzkitza, P. Agirrebaltzategi, I. A. koaga, J.L. Alvarez (Txilardegi), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmen-di, M. Haranburu, M. Lasa R. Ordori-ka, E. Entziondo, S. Lafitte, M. Paga-la, K. Anakabe, J. Sarrionandia, J.J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxebarri, B. Barandiaran, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde.

MAKETAPENA

R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzurika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz.

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

IDAZKARITZA

ETA

ADMINISTRAZIOA

Zabalbide 68-entlo. BILBO

Tfnoa. 4335808

MOLDIZTEGIA

Iparragirre S.A.

Carretera de Galdacano s/n. BILBO

Lege Gor: Bi-1753-1967

HOBEA GERTA DAKIGULA



Urtea joan zaigu. ANAITASUNarentzat hain zaila gertatu den urte hau iragan zaigu, eta nola edo hala, 1979.era bizirik sartzea lortu egin dugu. Etxe honetakook ederki dakigu honaino iristeko zer nola-koak egin behar izan ditugun. Irailean kaleratu genuen ale bakarrean, mirakuloski bizi ginela esan genizuenan, ez ginen inolako gehiegikeriaz ari. Gero apurka apurka eta mirakuluaren mirakuluaz, burua zerbait altxatzea lortu du ANAITASUNak, nahiz eta noiz arte jakin ez.

1979.eko urtea laster hasteko da. ANAITASUNaren 26. urtea izanen da berau. Zenbaki hau zuen etxeetara ailegatzean, hasita dagoke agian. Berriz ere, urte berriaren beldur da gure errebista, ez baita itxuraz hau ere gure salbamenarena izanen, eta 2000 harpidedun berririk egite-rik ez baldin badaukagu, biziki zaila izango zaigu hurrengo hamabi hila-beteetan irautea.

Hala ere, gure posibilitateen eskastasunetik, euskal prentsari eu-pada bat ematen saiatuko gara ANAITASUNatik. Aldizkari hobea, pro-fesionalago, interesgarriago eta irakurgarriago bat eskaini nahi genizue-ke. Ahal denerokoa den hau, egiatzko hamabosterokoa bihurtzen ahale-ginduko gara.

Gure helburua gero eta libreago, independenteago eta zabalago izatea da, ez baitugu inolako alderdi, koalizio edo bestelako indarren menpeko ANAITASUNarik nahi. Gure Herriaren askatasunaren bidean saiatzen diren indar orok, euskaldun eta herrikoi eritzi guztiek beren to-kia daukate gure horrialdeotan. Ez zaio inori inolako zentsurarik inpo-satuko eta artikuluen firmatzaileak dira beren eritzien erantzule baka-rrak.

Urte berri bikain bat opa nahi dizuegu ANAITASUNako langi-leok. Biziki ona gerta dakiola Euskal Herriari, eta hain zorion berrien premiarian dauden euskara eta euskal prentsari.

"BAI EUSKARARI"

Jaialdia - 1978.eko
Ekainak 17 - San Mames

Euskaltzaindiak egindako "BAI EUSKARARI" Deiak ekainaren 17an San Mames-en 50.000 lagun baino gehiago bildu zituenak, ba du azkenean disko eta zintaren forma.

Orain publikatu den grabaketa, egun horretan euskarren alde esandako guztia datorrigu eta egin diren grabaketa piraten balioa, zenbait dendetan ezlegalki salgai egon direnak, gezurreztatze- ra datorrigu.

Diskoaren balore musikala aztertu baino gehiago, euskal kulturaren alor desberdinetatik, euskarren jaiaren arrakasta posible egin zuten dokumentu interporal bezala, duen esannahi globala azpimarkatu eginen dugu. Grabaketa ere, horrelakoxea dugu eta horretarako, lan egin zuten kantariak, kirolariak, poetak, musikoek, lokutoreek, akademikoek, dantzariak eta abarrek. Baina nagusiki, publikoaren presentzia da kontutan har-

Zorionak eman behar dizkiegu, grabaketaren eratzaileri, prezioaren merketasunagatik; disko edo kaseta bi, baten preziotan. Salmentetaz biltzen den diruaren parte bat, Euskaltzaindiarentzat, gure hizkuntzaren sendotzerako izaneta da.

MENDITIK MUNDURA

Xabier Amuriza
IZ - 109 - D

Amurizaren lehen lan diskografiko ofizial honetan, bertsolari honen gartzelaldian zehar sortutako "Menditik Mundura" liburuaren poemak musikaturik agertzen zaizkigu.



Duen izaera bizi eta espontaneoaren kausaz, bertsolariak ez baldin badu orain arte diskoetan expresabide egokirik aurkitu, honetan, kantu legez estrukturatzen saiatu dira.

Kantutegi tradizionala oinarri nagusizat harturik, errima, neurri eta koplak berriak erabiliz, bertsolariaren forma zaharren berriatzailea den Xabier Amurizak, beste dinamismo bat eman nahi izan die grabatutako bertsoei. Lortutako erresultatuek bere posibilitateetatik ihes egin diote. Erabili diren musikoaren kalitate eskasak, desenfokatu egin du diskoaren helburu originala. Musika sinplea, eta batzutan, eduki liriko interesgarria duen disko batentzat, desegokia eta gaizki bideratua.

DISKOAK HAMABOSTERO



ZANTIRETU

Anton Larrauri
Lejoako San Juan
Bautista Abesbatza
Columbia - SCLL 14.106

Anton Larrauri, abangoardiako konposatzaile ezaguna, bere ikerketazko hildoari jarraitzen zaio. Oraingotan komentatzen dugun disko honetan, errekurtsuz joria eta tradizioz beteriko obra herrikoia batez hornitu du Lejoako San Juan Bautista Abesbatza.

Larrauriren indar estetikoak, abesbatzak indarturik agertzen zaigu. Ohizko klasizismo ezagun batetarentz jo zitekeen honek, indartu egin du Larrauriren obra eta, batez ere, Jose Ignazio Sarriak zuzendari bezala, lortu duen ahots egituraren bikaintasunari esker.

Disko bikain honetan, batu egiten dira euskal abesbatzen klasizismoa eta Larrauriren abangoardismoa, herritar iatorrizko abesbatza tradizionala errespetatzen duen musika leherketa batean.

KARLOS ARKO



LORE BAT, ZAURI BAT

Xabier Lete
Herri Gogoa HG 181 LS

Durango Disko eta Liburu Azokan aurkeztu zitzaigun X. Leteren album berri hau, bere aurreroko obraren hildo poetikoari jarraitzen zaio.

Literaturki, poetaren intimitatea hunkitzen duten gure herri eta jendea egindako maitasuneko kantuak ditugu, eta soldaritatea, etab. sortarazten duten kantu hauek, inpresionatu egiten gaituzte. Disko honetan agertzen diren kontzeptuen artean, lehenago ere hautatu zuen Chile-rena, Kataluina, askatasuna, mendia, eta abar daude, hauen balore poetikoa ezaguna da eta beren egituren konprenigarritasunagatik denontzat errazak gertatzen dira. Valverdek eta Letek beren indarrak batzen dituzten kantuetan, perfekzio nabari bat agertzen zaigu. Laburki esateko, Leteren nortasuna, aurrerapen berririk gabe, bere neurri osoan agertarazten digun disko bat.



tu behar duguna; partizipazio eta erreibindikaziozko ahotsak eta alaitasun kolektiboa dira grabaketaren protagonistak, eta herri partizipaziozko giro horretan daude lan honen egiazko karakteristikak: informe bizi eta oso batenak.

BAIETZA =
 =DEMOKRAZIA =
 =ASKATASUNA?

GAITZESPENA =
 =ESTATU KOLPEA?

Modu honetan presentatu izan da Konstituzioa, eta horrela haizatu dute komunikabide estatal guztietaz (telebistaz, irratiz, prentsez), ez du ematen, beraz, aukeratzeko orduan inolako zalantzarik izan zitekeenik.

Estatuko politiko nagusi guztiak, Suarezetik hasi eta Abril Martorellekin bukatu, Carrillo eta Felipe Gonzalez-en bedeinkapenez, eta beselako elizmutilen laguntzaz (ORT-ko San Romá kasu), bat etorri dira Konstituzio hau Konkordiarena, errekontziliapenarena, demokraziarena, askatasunarena zela esateko. Horregatik, "espainol" guztiok geure baiezko botua eman behar genion halabeharrez, ala bestela: *Estatu Kolpea* (eta eskaini ere egin ziguten honen parodia bat Galaxia operazioaz), terrorismoa (Estatuaren instituzioena honetan sartu gabe), lapurreta, kaosa eta desordenua lirateke gaitzespenak ekarriko zituen ondorioak.

Eta xantaia politiko honek sortutako koakzio eta beldurrezko giroan, hain zuzen, inoiz Konstituzio bati egin zaion gaitzespen portzentajarik nandiena eman da.

Erreferenduma



	ABSTEBTZIOA	EZETZA	GAITZESPEN OSOA
Gipuzkoan	% 56,55	% 12,95	% 69,50
Bizkaian	% 56,06	% 9,50	% 64,56
Nafarroan	% 34,00	% 11,29	% 45,29
Araban	% 40,71	% 11,38	% 52,09

Euskadi mailako datuak harturik, baietza % 34koa izan dela ikus daiteke, eta honen barnean sartu behar ditugu: UCD, PSOE, PCE, ORT, PC (karlistak), CCOO, UGT, SU, beldurra, komunikabideak eta lista elektoralak elaboratzean agertutako irregulartasunak.

Aritmetikoki esateko, *Hego Euskal Herriak % 62 batez gaitzetsi egin du Konstituzioa.*

Politikoki, egia da % 66 hori alda izaketan bestelako faktore batzuegogon litezkeela. Ikus dezagun:

Egia da herri guztietan, batzuegote % 15 bat legez jo daitekeen abstentzio teknikoa ematen dela. Baina egia da ere, mundu osoko herri demokratikoetan, opzio bakar baten aldeko kanpaina intoxikatzaileak (gurean baietzaren aldekoa), ez direla hemen bezain lotsagabeki egiten eta, ez direla boterean dagoen alderdiak (UCD) eta kontsentsuko beste alderdiek hain monopolizaturik egoten, baietzaren kontrakoak ahots gabe utzi arte. Eta gainera gure kasuan, artikulua hasieran aipatu dudana

legez, beldurraren botuaz jokatu dutela hartu behar dugu kontutan, baietza eta Estatu kolpea kontrajarrit.

Ene ustez, Estatu mailako % 34ko abstentzioa, % 6ko ezetzaz baturik, Konstituzioen historia osoan zehar, sekula eman den gaitzespenik kontzienteena izan da.

Euskal Herrian, askatasun sozial eta nazionalen aldeko trajektoria luze batean zehar, biziki politizaturiko herria izanik, gaitzespen hori are kontzienteagoa izan da, eta Hegoaldeko lau probintzietan eman den batzuegote % 62ko gaitzespen horrek argiro frogatzen du Euskal Herriko populuaren gaitzespenezko borondatea, askatasun nazionalik eta langileen eskubiderik onartzen ez duen Konstituzio baten aurrean.

EKAINAREN 15.EKO INDAR ERLAZIOA ALDATURIK

Triunfalismoetan erori gabe, langileen garaipen bat bezala balora deza-

kegu erreferendum hau, zentralismo eta kontsentsuzko politikaren aurka.

Konstituzioa, Estatu mailan lortutako gehiengo antidemokratiko batez inposatuko diguten arren, erantzuna emana dago, eta gobernuak eta kontsentsuko alderdiek hartu dute kolpea, eta ihazko ekainaren 15ean lortu zuten indar erlazioa aldatu gertatu zaie, eta ba dakite aurrerantzean ezin izango dutela beren hegonia luzaro mantendu.

Erreferendum honek, bada, Estatu herrien eta langile klasearen eskubideak lortzeko, egarri den borondate demokratiko argi bat erakusten du.

Orain ez dute balio sasikonponketek, atxakiek eta manipulazioek eta alarmaren botoi gorria biztu egin da, demokraziaren ezartzeari erantzunik eman gabe, boterean jarraitu nahi dutenentzat.

KONSTITUZIOAREN KANPAINAZ

Ez nuke neure artikulua bukatu nahi, Euskal Herrian zehar baietza edo ezetzaren alde egindako kanpainen aipamen berezi bat egin gabe, eta alderdi edo koalizio desberdinek sortarazi duten interesa, konparatiboki aztertu gabe.

Telebistak, prentsak eta irratiak eskaini diguten halabeharrezko into-

ren ondoren

xikazioa beren alde izan arren, ekainaren 15eko alderdi majoritarioek galdu egin dute lehenago, herriaren aurrean zeukaten irudia, eta UCD, ORT, PCE eta PSOE-ren mitinetan agertu izan den herri partizipazioa barregarria izan da ia; eta azken bien kasuan, Euskadin eragin inportantea daukaten alderdi langileak izanik, gauza bera nabaritu ahal izan dugu.

Bestalde, planteiamendu zentralisten hondamenaren ondoren, PNV gogortu egin da Euskadin alderdi elektoralista bezala, bere barne kontrasesanak inportanteak eta duda mudazko politika bat eraman arren. Esan daiteke abstentzioen % 55 horretatik, 45a PNV-ren oinarriari dagokiola, nahiz eta oinarri hori bere zuzendaritzaren politikaz ados izan ez eta Konstituzioari eman dion gaitzespena bere zuzendaritzarena berarena baino kontzienteagoa izan.

Abstentzioaren % 10a, ezker abertzalearen zenbait sektoreri dagokio, urnek sortutako higuin historikoagatik, konstituzioa gaitzesteko, abstentzio aktiboaren bidez nahiago izan duena. Kontutan hartzeko beste faktore bat, 18-21 urteko gazteen botuena dugu, hauetarik % 60 baino gehiago boturik ezin emanik gelditu da, lista elektoralak gaurkotu gabarik baitzeuden. Honek hautatzaileen % 6 bat suposatzen du, gehienetan ezkerrekoak, eta konkretukiago ezetzaren aldeko ezker kontsekuentearen barnekoak.

Kanpainan zehar interesik handiena bereganatu duena, ezker abertzalea izan da, eta zentzu honetan, Herri Batasuna koalizioa, ezkerreko alternatiba bati erantzun nahiz eta plataforma unitario bat topatu nahiz ari diren Euskal Herriko sektore zabalak batu egin dituen elementu berri bat bezala agertu da, eta ez bakarrik Konstituzioaren aurrean, bai eta Hauteskunde municipal eta jeneraletarako eta estatuturako ere, epe laburrerako programa bezala.

Herri Batasunak lortu egin du UCD-ren gobernuak inposatutako blokeo informatiboa haustea eta, ahotsez 150.000 hautatzaile baino gehiagorekin konektatu egin du. Bilboko Kirol Pabeiloia (10.000 baino gehiago), Anoetako Belodromoa (15.000 baino gehiago), Gasteiz, Iruñea, Tolosa eta Hego Euskal Herriko eremu osoan zehar, hau gobernuari eta alderdi "majoritarioei" egin zaien desafio bat izan da, eta bai eta ere, "politika posiblearen artea dela" uste dutenei eta "ezin dela emango dizutena baino gehiagorik eskatu" eta "holokaustoa" burjeseriak inpo-

satutako erregelak onartuz ebitatzen dela uste dutenei; "holokausto" hori, burjeseriaren erregela horien barnean doala konturatu barik, eta erregela horiei "Konstituzioa" deritzela.



ORT-eko San Romá: baietz!



Euskadik ez du hauen Konstituzioa onartu.

GEROARI BEGIRA

Hórregatik, masokismorik gabe, eta Viriato (Numancia), Guzmán el Bueno (Tarifa), eta General Moscardó imitatzeko intentziorik gabe, eta ez Kerenski edo Berlinguer ere, ba dugu geure aurrean, errespontsabilitate historiko garrantzitsu bat, hau da, gure herriaren esperantzak ez zapuztea. Konstituzioak hau frogatzeko balio izan du eta beronen erresultatuek ekainaren 15eko mitoa hautsi dute; baina hau ez da izan egiteko ditugun batailetarik bat baizik. Estatutua eta Udal Hauteskundeak ditugu hurrengo helburuak eta horien alde burukatu behar dugu, baina ez bata bestearengandik banatuz, Estatutua elaboratzeko ez da ekainaren 15ean agertutako indar erlazioen arauera egin behar. Eman diren aldaketa koerlatiboak kontutan hartu behar dira, sortu den egoera berriaren arauera, eta zentzu honetan, hauteskunde municipalak dira funtsean panoramika alda dezaketanak.

Konstituzioa onartua izan da, esango digute. Eta, beraz, marko horren barnean onartu behar da estatutua. Eta hauxe da bat ez gatozen puntua, zeren hemen arazoa ez da konpontzen estatutuari egin dakizkiokeen apaindura progresistetaz; arazoa beronen onartzeko inposatzen diguten muga, sabaia da, eta muga horik Konstituzioak markaturik daude.

Ondorioz, aldatu behar direnak "sabaia" dira, eta burruka arlo horretan planteiatu behar dugu.

Jon Idigoras

Adio Konstituzio!

Konstituzio espainolaren eguna joana da. Historia da jadanik. Orain politikari asko jo eta ke ari dira matematika erabiltzen, errealitatea beren gustuetara egokitzeko. Harrigarria bada ere, lehen uneko deklarazioetan, talde guztietako ordezkariak zioten arrakasta izugarria ukan dutela. Holakorik! Hemen, kontsolatzen ez dena kontsolatu nahi ez duelako da. Gure ustez, ordea, labankada ederra egin dute alderdi estatalista majoritarioek, gobernua barne, Euskal Herriari dagokionez. Eta arazo honetaz mila eratako iruzkinak egin direnez, ez zaigu besterik otu, bertsoak idaztea baino. Negar egitea baino sanoago dela uste dugu.

Konstituzio espainolaren eguna joana da. Noiz helduko ote da konstituzio euskaldunaren eguna?

Abenduaren seigarrenean ederrak gaude ikusiak. Erreferendu egun horretan pasa dira komediak. Jende guztiak botaziotan jarriak zeuzkan begiak. Triste geratu dira azkenik euskaldunen etsaiak.

Propagandatan izugarritzko bonbaketa sufriturik. Telebista, irrati ta beste guk ez dugu holakorik. Baietz jakina denek batera, ez dute gura besterik. Horrela izanik guk ez genuke Euskal Herrian bakerik.

Adolfo, Santi, Felipe eta Juan Carlosen lagun onak! Oraingo txandan ez dira izan oso bigun zuen penak. Bizi garen burruka honetan, Biba gudari kutunak! Askatasuna lortzeko presto gaude gaurko euskaldunak.

Euskal Herriak ez du onartu espainiarren legea, nahiz 'ta Madrilen kontsentsu bidez ongixto jaio umea. Edozertara, guk ba dakigu hori ez dela gurea. Eta ez errekonozitzeko ba dugu eskubidea.

Pesoetarrak hor ari dira azalezinak azalduz, abstetziolari hogei ta hamar edo guttienez kenduz. Ezetzak eta boto zuriak ere poliki ahaztuz. Azken batetan, gehienok baietz esan dugula frogatuz.

Espainiari begira dauden alderdi politikoak, Majoritario izen ponpoxoz dioskuez betikoak. Ehuneko hogei ta hamabost hemengo monarkikoak. Horixek dira lagun maiteok baietzaren aldekoak.

Gobernukoak tonto ez dira 'ta omen daude urduri, Adolfo bera ere bide da geratu zur eta larri. Ikas dezala errepresioak zer fruitu duen ekarri. Herri zapaldu honetan gaude askatzearen egarri.

Galizia ere oso beroki zaigu azkenik hasia. Botatzerako ez da azaldu bizilagunen erdia. Nazio itikien arazoa ez baita gauza bitxia. Hainbat gudarik burruka latzez emana dute bizia.

Gaztelania lege indarrez bultzatzerako aukera. Gure hizkuntzaren aurka beti diglosiaren ikara. Euskaldunok asko ez baina behintzat memelo ez gara. Aukeratzeko dudarikan ez, guretzat bego euskara.

Estatutua ez da izango batzuk nahi zuten bezala. Exigitzeko dugun indarra ez da benetan makala. Hasteko, behintzat, guk nahi duguna osorik nazionala, Nafarroa ere ondo sartuta bere barruan daukala.

Pentsa dezagun, gaurtik aurrera zer beharko dugun egin. Zer modutako etorkizuna? hori nahi genuke jakin. Euskal Herria errealitate bihurtuko dugu arin. Horretarako lan egin gogor euskaldunok elkarrekin!

Gure indarra handitxo da egon arren banatua. Batzean dugu abertzaleok garaipenaren gakua. Jende guztia helburu batez burrukan oso lotua, errealitate egin dezagun Euskal Herri askatua.

Txepetxa

"Barragarria izandu zen"

(Anaitasuna - 371-372 h. 13)

Baten batzuen ahoan, batasuna hitza maiz entzuten ari gara, baina azkenean eztasuna bihurtzen zaie, eguneroko ekintzabidean. Eta eztasun delakoa oinarritzat, urgaineko berba jarria, berba hotsa, eraso kritiko bati eusteko gai ez dena.

Eta hau guztionen froga, irakurri dudan Alex-en artikulua hartzen dut orain haritzat (EAJ.ko neokarlistak eta Herri Batasuna. Anaitasuna n.º 371-372, hor. 13).

Kalifikapenak eta ondorioak datu subjektibo eta faltsuetan oinarritzen direnean ez da harritzekoa egileak erastea Euskadiko Ezkerrako ekintzari, hitz zerrenda hau: demagogo, erreformista, xinplea, inozoa eta abar.

Baina goazen ba, datu zehatzez arazo aztertzea, eta azkenean irakurleen esku uzten dugu erabakia.

PNVk, beren proposamen zapaltzaila, ekintzabide baten ondorioz, egiten du, eta inguruko akolito guztiak, onartzen dute ekintza, "terrorismo" delakoaren kontra, manifestapenean parte hartuz.

Euskadiko Ezkerrako erakundeek behingoan erreakzionatu zuten, urriak 12an, kontra azalduz, erakarriko dituen ondorioak aztertuaz batez ere, delako manifestapen horrek (EGIN, n.º 320, urriak 12, hor. 5). Beste batzu ere kontra azaldu ziren.

Beste alde batetik PNV eta PSOE batez ere, E.K.N. (Eusko Kontseilu Nagusia) nahi zuten burutzea manifestapena, hau da, Euskal Herriko parte batetan dagoen erakunde batek. Baina Euskadiko Ezkerreko "batzorde iraunkorrek" eta E.K.N.n duen ordezkariak argi eta garbi salatu zuten, manifestapena eta maniobra zikina, azalduz, alderdi batzuen ekintza zela, eta E.K.N.-k zertan jarraitu beharrik ez zuela.

E.E.ko ordezkariak, ETAKo batzuen judizioan parte hartu behar zuela eta, ez zuen posible bilera berezian egotea, baina E.Eren ekintzabidea, argi eta garbi utzi zuen (EGIN, n.º 321, urriak 13, h. 5).

Beraz ez gabilta inoren atzetik. Guk gure ekintzabidean herriaren eta langi-

leriaren interesak defenditzeko gairara, arerioak bereiziz une bakoitzean.

Gero ondoren urriaren 26an (EGIN, n.º 332, hor. 32) Herri Batasunak konbokatoria berri bat egin zuen, eta Euskadiko Ezkerrak berriz ere, juxtu hurrengo egunean, (EGIN, n.º 333, h. 5) azaldu zuen ez zuela ere bidezko ikuzten H.B.k konbokaturiko manifestazioa.

Beraz, "azken orduko ateraldia" H.B.koa gertatu zen, fetxak kantatzen duten arauera. Eta gure ustez, irabazi baino, gehiago galtzen zuen herriak,

delako azken orduko ateraldian.

Uste dut ba, gauzak beren lekuan jarririk daudela. Ba dirudi artikulua egileak, azken batetan dena enfrentamentu moetara mugatzen duela ekintzabide baten izana eta projektua. Iraultzailatasuna enfretamendu moeta baino gehiago dugu, mami edo euki soziopolitiko bat, ekintzabide pluriformalean burutua, maila guztietan.

Baira arazo hau, beste batetan aztertuko dugu.

J. Agirreazkuenaga

1978 urriak 13,
ostirala

egin

Defenderá en Madrid a presuntos miembros de ETA (m)

Bandrés no asistirá a la reunión del CGV

SAN SEBASTIAN (EGIN). — La coalición electoral Euskadiko Ezkerra anunció ayer mediante un comunicado que su representante en el CGV, Juan María Bandrés, no asistirá a la sesión extraordinaria que con motivo de la convocatoria por parte del PNV de una manifestación contra la "violencia terrorista", se celebrará hoy en Bilbao por la tarde a instancias del PSOE.

En la nota de Euskadiko Ezkerra se señala que la fecha de la celebración de la sesión extraordinaria coincide con un juicio contra presuntos implicados en actividades de ETA militar en el que el senador está de defensor.

Beneficia al centralismo

En cualquier caso, la coalición asegura que a pesar de este inconveniente "no apoya la convocatoria del día 28 y califica esta iniciativa del Partido Nacionalista Vasco de desacertada, con consecuencias aún difíciles de prever, pero en todo caso —dice la nota— consecuencias que en nada favorecen a la unidad de las fuerzas políticas vascas". Más adelante EE afirma que "el único beneficiado de acciones como la propuesta es el centralismo, el cual se va a enargar de utilizarlo debidamente y que en ningún caso ayuda a la tan necesaria normalización que sólo llegará por el camino de las medidas políticas que abundan en el respeto de los derechos y aspiraciones de nuestro pueblo. Mayor gravedad adquiere esta errónea idea en el momento en que en la Constitución han sido rechazadas todas las enmiendas vascas".

Finalmente Euskadiko Ezkerra insiste en que "quiere afirmar que su postura sea conocida en la reunión del Consejo General Vasco y que por lo tanto, cualquier decisión que pueda tomar el organismo preautonómico sea por mayoría y nunca por unanimidad de las fuerzas que lo componen".

Telegrama de Bandrés

En este orden de cosas el senador Bandrés ha enviado el siguiente telegrama al Consejo General Vasco:

"He recibido el telegrama de su secretaría convocando reunión ex-

traordinaria del Consejo, a la que no acudiré por tener que actuar como defensor en juicio inaplazable, señalado el mismo día por la Audiencia Nacional. Muestro mi disconformidad con convocatoria cuando el Consejo no se reunió en momento tan importante para Euskadi como el representado por la disensión de la Enmienda Foral en el Senado.



Bandrés (Foto Gallego)

Ruego conste mi deseo de que en esa ocasión el Consejo como corporación mantenga sus precedentes de libertad e independencia por encima de toda opción de cualquiera de las fuerzas políticas que lo componen. Ahi llega la nota escrita de la coalición de Euskadiko Ezkerra al Consejo. Cordialmente: Juan María Bandrés, Consejero de Transportes y Comunicaciones del Consejo General Vasco."

Mitín en Sestao
Por otra parte, un portavoz de esta coalición ha anunciado con motivo del mitin con el que inician la campaña constitucional de Eus-

OIC: "Afianzará la derecha centralista"

Por su parte, la OIC anuncia en un comunicado hecho público al respecto que "la actitud del PNV, lejos de suponer un paso adelante en la normalización de Euskadi, tiende a afianzar la derecha centralista y su línea de recorte de libertades e imposición de medidas represivas". Según la OIC-EKE esta organización afronta la manifestación contra "la violencia terrorista en los términos siguientes:

La postura del PNV, no es en todo caso una actitud frontal exclusivamente dirigida contra ETA, sino muy principalmente dirigida contra todos aquellos elementos consecuentes que defendemos el reconocimiento del derecho de autodeterminación y nos planteamos un claro rechazo de esta Constitución.

B) Consideramos la posición del PNV como una maniobra que tiene por objetivo legitimar la Constitución y el Referendum, maniobra mediante la que pretende dejar bien sentada su aceptación global de la Constitución, independientemente de la actitud táctica que pueda adoptar frente a su electorado.

C) En cualquier caso, la posición del PNV favorece a la derecha, UCD y AP, en la medida que la lecha contra la actividad armada de ETA pasa exclusivamente por una democratización profunda de la vida en Euskadi, lo cual implica una línea de claro ataque a las posiciones de la derecha a través de la movilización del pueblo y la exigencia de dicha democratización. La actitud del PNV, lejos de suponer un paso adelante en la normalización de Euskadi, tiende a afianzar a la derecha centralista y su línea de recorte de libertades e imposición de medidas represivas".

EUSKAL HERRIA

Estatuaren terrorismoa konstituzionaldurik


Burjes demokrasiaren sostengu diren indar armatuak edo Estatuaren terrorismoa erakundetu eta konstituzionaltzeko, lehenik antiterrorista legea onartu zen Madrileko parlamentu ganbaran. P.N.V.ren 28ko manifestaldiak inperialismoarenugarra berpizturik, eta U.C.D.ren beste bidelagun sozialinperialisten eskutik, Martin Villak ixilpeko beste 15 puntu antiterrorista jarriak ditu martxan.

Hori dela bide, horra! Arrasaten ordenu zaintzaleek erasotako txiki-zioa. Herri atzeratu eta ezjakin batean bageunde bezala, gainean, Arrasateko gudariak pistolaz eraso ziela eta lotsagabekerizko komunikadu gezurti bat zabaltzen dute. Halako lotsaren lotsez, Euskal Kontseilu Nagusia bera ere informaketa zehatzago bat ematera beharturik aurkitzen da. Martin Villak, ordea, gaizki hartzen ditu Txiki Benegasen deklarrapen zehatzak, eta bere gezur ofizialaren kontra atera delako, gogor erantzuten dio.

ERANTZUNA

Herriak, ordea, bat batean eta sutsu erantzun zuen. Ostegunean bertan Lenizko bailara osoa greba orokorrean geratzen da, eta hurrengo egunez, azaroak 17, Gipuzkoa guzira, entrepresa oro, banka, fabrika, denda denak ixten dira, eta herri gehienetan asanblada eta manifestaldi handiak egiten dira. Berdintsu erantzun zuten Bizkaiaiko zenbait herri eta entrepresatan. Gazteiz eta Iruñian ere ez ziren herri manifestaldiak faltatu. Dena dela, aipatu beharrezkoa da greba honetara ez zutela deitu nahi izan alderdi eta sindikatu handienak, adibidez, P.N.V., PSOE, CC.OO., UGT, eta abar. Baina Gipuzkoak eta Euskal Herriak ez du halako artzain makilen beharrik, heldua baita, zorionez. Bestalde, irrati-telebista eta komunikabide orok greba eta manifestapen egun horretako informaketa guztiz gaine-tik, eta gutxietsiz baizik ez zuten eman.

Greba orokorraren ondoren ezker alderdiak zein baino zein prestuago ibili ziren. EIA, EMK, LKI eta beste ere ohiturazko komunikatu eta hileta batez konformatzen ziren. Hain zuzen, Arrasateko gertaerak argitu, erantzukizunak eta Martin Villaren dimisioa eskatu berriro, eta kito!



KASeko alderdiek bakarrik hartu zuten Herriko borrokaren haria, eta ahariari adar bietatik helduz indar errepresiboen deuseztatzea eta KAS alternatibako gutxieneko puntuak eskatu. Bide horri loturik, azaroak 18rako KASeko indarrak eta Amnistia-aren aldeko gestorek antolatutako hileta eta manifestaldia atera zen aurrera. Zenbait milaka manifestari zamatuturik, katedraletik Avdara, hibaia bailitzan gainezka, eta ehundaka armadakoek ilunbean, kale mutur guzietarik eraso, egurtu eta zanpatu gintuzten, ondoren etengabeko kepote, pilota eta barrikadekin jarraituz. Komunikabideek egundoko gezurrak zekartzaten hurrengo egunean. Irratiak mila bat pertsona aipatu zituen eta telebistarentzat (hilik ez bada behintzat) ez ginen existitzen ere. Herriaren lehenatasunari, eta dagokion bezala bere mobilizapenari lehen lekua utziz gero, etorri zen agudo asko esperoko erantzun armatua.

Baina, espainol indar armatuak dira nagusi, eta hor dabilta arnasik hartzen uzteke, errepresioak, kontrolak, katxeoak eta atxilotze ugariak. Areago, ez da nahikoa, ordea indarkeria eta euskaldun sailak atxilotzea. Errepresioa zuzitzeko goitik behera gezurtatu eta engainatu behar, eta, adibidez, Arrasaten Zabarte, garai batean ETAKoa izandakoa, gero amnistiatua, eta orain HASI alderdiko borrokalariak, bere emaztea eta beste lagun bat atxilotzen dituzte, eta gezur borobilez jositako ageriak

zabaltzen komunikabideetan zehar, ETAKo komando bat armekin harrapatu dutela, etab. asmatuz. Berdintsu gertatu da garai batez Polimili izaniko eta egun EIA alderdiko diren ekintzaile zenbaitekin.

Telebista eta irratiak konstituzioa burezurretaraino daraturutzen digun bitartean, burutzera doan burjes demokrazia indar armatuen kolpez, egunero ehundaka euskaldun gartzelaratuz, eta abar, nahiz eta Euskal Herriaren Konstituzio honen kontra gehiengo bat egon, delako Konstituzioa, herri eta euskal demokrasiaren (lege zaharra) kontra, komunikabideen manipulazioz eta Estatuaren terrorismoa legeztatutik eta instituzionaldurik (?) konstituzionaltzen digute.

INDAR ARMATUEN NERBIOAK

Martin Villa eta Mugica Herzog ez dabilta alferrik, erre eta erre, terrorismoa ETAKoa dela bakarrik errepikatuz, indar armatuena, ordea, nerbioak omen. Hitz konprenigarriak halako inperialisten ahoetan. Gobernuak kontsentsuko bidelagun boteretsuekin elkaturik eraso du, baina euskaldunok zailduak gaude eta borrokan jarraituko dugu, Euskal Herriaren interesak eta, batik bat, bere langileriaren interesak defendatzeko ez dugu mediorik erreparatuko. Ez zaigu aukerarik ematen eta, errendizio osoa baino.

A/lex



Berriro ere zigorpean

"...goizean eta gauean beldurrez, nork ikus eta nork entzun beldurrez..."

Jadanik erdi ahazturik genuen sentimendu hau, lehengoan KOSKA taldearen kantaren bidez gogoratu zitzaidan. 1975.ean agertutako kanta dugu hau, eta seguru aski lehenagotik eginda zegoen. Euskal Herriaren urte haietako giroa agertzen zuen kantak. 1978.eko azaroan sentimendu berdina hedatzen ari da gure herrian.

Frankisten erreformak, orain dela urte bete betiko burrukaren berplanteiaketa bat egin zuen, non sartu zituen tableroan: hauteskunde orokorrak, alderdi batzuen legeztatena, manifestazio eta hitz egiteko askatasun pixka bat gehiago. Era berean erreforma bati ekin zion, eta erreformaren bukaera oraingoz, datorkigun kartzituzioa dugu. Une honetan jadanik garbi esan dezakegu, oligarkiak ez duela herriak bere burrukaz lortu nahi dituen gauzetatik bat bera ere onartu.

MILITARREN AURPEGI HASERREA

Dudarik ez izan erreforma honek gure herria integartzeko izan duen indarrak. Burrukalariak baretzeko erabili duten estrategia ezaguna da: ezer ere ez eman eta beti militarren aurpegi haserrea erakutsi. Honela lortu dutena ez da gutti izan, eta horrela indar politikoen lekua ez da 1975.ekoa. Oposizio eta ezkerreko hainbat alderdik berplanteiaketa

onartu du, beste era bateko planteia-menturik lortzeko unea ez omen delako. Guk ordea, ez dugu ikusten beraiek proposatzen diguten herritar programa bat ezartzeko modu majikorik, eta ikusten dugu batailaz bataila burjesia ateratzen dela garaile, eta langileriaren aldeko programa bat gero eta urrunago.

Euskadin, ordea, ba daude berplanteiaketa onartu ez zutenak, eta gure herriari eta gure langileriari beharrezko zaion planteiaketa baten alde jarraitu zutenak.

"Politiko" askoren ustetan hauen burruka minoritarioa, ez politikoa eta azken batetan irabazteko inolako garantiarik gabekoa zen. Politika iraultzailea masak iraultza bidean aurrera garamatzen programa baten inguruan batzea bada, ordea, ez legoke hain garbi goiko horien baiezpena. Izan ere, KAS-ek ez zuen berplanteiaketa onartu eta alternatiba bat aurkeztu zuen, eta gaur, 1978.eko azaroan programa hori, Herri Batasunak onartutakoa, herri honen sektore handi batek onartzen du, eta beraren alde mobilizatzen da: mitinetara doa, manifestazioetara doa. Eta ez bakarrik programa, bere burrukatzeko era ere onartzen du, eta horrela, KAS-en barruan dagoen erakunde harmatua eta Gobernuaren aparatuen arteko burrukan norekin dagoen ba daki.

ERREPRESIOA BERRIZ

Izan ere, Gobernuaren asmoa ETA eta KAS alternatiba defendatzen

zutenak aisladatzea zen, baina gauzak alrebes suertatu zaizkie eta gaur bloke hori indartsu dakusagu, aspaldi ez bezala.

Herri honek, berriro ere, Gobernu egoera beltzean jarri du: edo herri honen eskabide minimo horik onartu ala errepresio zigortu. Oraingoan ere, errepresentatzen dutenaren estrategia zaharrari jarraituz, bigarren bidea hautatu dute. Horrela ulertu behar ditugu: Lege Antiterrorista, koartel berriak, Villa-ren 15 puntuak, Alemania, Ingalaterra eta Frantziara bidaiak (teknika berrien bila) eta konstituzioa, guzti hau betirakotuko duena.

Lege historiko bat da, sistemaren errepresioak ez duela neurrik, eta ETA-koak atxakia harturik, noraino helduko den errepresio hori gauz ezin dugu jakin; ba dakigu ordea herriaren nahia ixilerazten saiatuko direla.

Honen aurrean, inoiz aipatu den zigorraren aurkako frontea beharrezko dugu. Baina ez gaitez en gaina, eta pentsa dezagun fronte hau ez dela egingo alderdien arteko hitzarmen baten bidez bakarrik, herriaren autoeraketa dugula tresnarik onena berai lortzeko.

Gobernuak ez du horrelakorik onartuko eta zigortzean, ekintza politikari ateak ixtean burruka harmatua geldituko da berriro ere errepresioaren aurrez aurre. Egoera hau jadanik ezagutzen dugu. Hau ikustean nork esango dio ezetz esaldi famatu horri: "Hau beti bezala dago, gauzak ez dira bat ere ez aldatu".

Mendizabal

ZAN-ZEN EUSKADIN (jarraipena)

Hazi, Budismoan hazi da "Zan-Zen" a, baina denontzat interesgarritzat jo daitekeen dimentsio bat darabera berarekin. Ez du, ordea, ideologia berezirik, Enomiya Lasalle eta *Dürckheimen* ustez.

Mundu-ikuskeran batetan koka daiteke (gure kasurako kristau eta mendebaleko) konkretuki Bibliaren interpretapenerako, liturgiarako ba du bere garrantzia.

Aparteko garrantzia laguna amildegitik begiratzen duen maisuak du.

Lasallek dioenez, giza-arima sakonki ulertzeko gauza den edonor izan daiteke gidatzaile horietako bat, naiz eta Zen zer den ez jakin.

ANAITASUNAK: Zer dela eta

ukan du Zan-Zenak hain arrakasta handia Sartaldean?

AS-k: Zen-arekin zer ikusirik handiena duena, kristau mistika da, batez ere XIVgarren mendeko Ingala-terreko izengabeko batena. "*Jakinezaren hodeia*" deritza bere liburuari. *Eckehartek* eta *San Juan de la Cruzek* ba dute Zen-arekin zer ikusirik ere. Hemen Sartaldean Zen-aren jarraitzaileek ikertu dituzte hirurak berriro hain zuzen. Gainera Japoneko Zenaren maisuek ohore handitan dituzte.

Gaur egun benetako arimaren iraultza bat diraki. Aitortzekoa da gure mendebaleko kultura, efikazia konkretuaren zentzu zorrotzegi batek jota dugula. Gizakiaren irrika sakon

bat baino gehiago, gauza azalezkotzat hartu egiten dira (zoriona galtzerdi pare batetzat). Ondo dago zientzi-arrazoinamendua, baina ez da aski. Teologia bera onuragarria da, ez gaitu asetzen ordea. Gero eta jende gehiago dabil itoka giro hestugarri hontan.

Hori dela eta, muga horik gainditu nahiz gertatzen ari da delako "arimaren iraultza" dela drogen, dela gogoetaren bidez.

Hau guztiau ihesbidetzat ez hartzea. Jainko pertsonal batenganako eta urkoarenganako maitasuna kristau sinesmenaren ardatza baita.

Zan-zenaren bidez oinarrizko zentzuaren zentzumena berreskuratu egiten da. Bizitzaren sustraiak kristau sinesmenaren bizipena berreskuratzen dira. "Belarria" begia irekitzean datza, sakonkiago entzuteko, ikusteko Berri Ona. Beraz, ez dago ihesbiderik nahiz eta zoritxarrez honela gertatu ahal izan. Moises Elias baten mistika salatzaileaz ari gara. Politikak, hitz laburrez, Mistika laguntzea.

Ez dago bizitza zuzenik gabeko "zen" ik, baina halako bizitzan exigentzia etikoak ez datozkigu kanpotik arimaren barnetik, askatasun osoz. Yahvearen hitza hurbil hurbil duzu aho-bihotzean bete dezazun (Dt. 30, 14).

Yahve-ren delako hitz hau Testamentu Berrian, Kristo da, dana eta behin betiko. Aitak esan diguneko hitza (*San Juan de la Cruzek*: "*Subida al Monte Carmelo*" XXII - 3 - 6).

Bai *Lasallek*, bai *Dürckheim* gairagabeko gogoeta moeta honek nola lagundu zituen Japoneko kultura eta bizikera ulertzen, lehenengo diplomatikoz zelarik, bigarrena misiolari.

Jainkoarekin topo egiten lagun gaitzake, besteak beste. "Inork ez du Aita ikusi, semeak izan ezik". Berari buruz burura dakigukeen oro ezin daiteke Bera izan. Horregatik arrazoi-mena, oraingoan bederen alde batetara utzi behar. Arrazoi-mena irixten ez denera, hel daiteke amodiozko arre-ta. Atlantikoko erdi-erdian arraunak utzi behar Izpiritua bere haizeaz oihalak bete ditzan.



San Juan de la Cruz. Mendebaldeko kristau mistika da Zen-arekin zerikusik handiena duena.



Zen-a budismoan hazi zen, eta Japonen izan ditu bere maisurik handienak.

A-k: Nola sartu zen gogoeta moeta hau Euskal Herrira?

AS-k: Gasteizeko apaiztegiko aita J. Oinatibiak, Dürckheim-en ikasle zen J. Castermane ezaguturik, "La Cerca" otoitz-etxera deitu zuen, gero Lazkaora.

Honela hasi ziren euskaldun batzu zen eserialdian elkarrekin.

Gainera, Bilboko "El Mensajero" argitaletxeak Zen-ari buruzko liburu batzu argitaratu ditu.

Bibliografia (Gazteleraz)

E.M. Enomiya Lassalle. *El Zen. Mensajero Bilbao. Zen camino a la propia identidad*".

K. Dürckheim, *El Zen y nosotros. Mensajero.*

D. I. Suzuki, *La Gran liberación. Zen entre cristianos*, Herder Barcelona.

A. Schluter, *Vida Nueva*, n.º 112, 1978 pliego.

Borja Barandiarán

Juan Ramon Martinezi



Adiskide maite hori;

Elkarrekin azkeneko aldiz hitzegin genuenean esan zenidan: "Euskaraz ikasi behar dut, nola edo hala, baina laster. Esaidazu modu bat, zaila bada ere, agudo ikasteko".

Eta hortaz mintzatu ginén.

Euskaraz ikasteko hoberena, berehala hitzegiten has-tea da... esan nizun nik. Hemendik aurrera, elkar ikusten dugun datorren alditik aurrera, nik beti euskaraz hitzegi-nen dizut.

Eta hau da Juan Ramon, nafartar gazte, periodista trebe, adiskide min, hau da hurrengo aldia... zure azken joanerako hurrengo aldia.

Zure ilusioarengatik, lanarengatik eta adiskidetasuna-rengatik, agur, beti arte.

Patxi Zabaleta



Durangoko euskal azokan ikusi nuen azken aldiz nik. Komunikabideei buruz egin zen mintzaldian aritu zen hizketan.

Laburki, hau ere esan zuen: "Euskal Herrian bi prentsa klase bereizi behar ditugu: euskal liberazio soziala eta nazionala nahi dutenak, ...eta besteak". Mila esker, gu ere horretan ari baikara.

Eta Tomas Muro ere euskal kazetari zen. Eta ez zen euskaldun jaiotzez. Eta lana langilearen balio zela aitortu zion hitzari. Euskadiren alde lan eginez, euskaldun jatorra bihurtu zen, gure egunkarian.

Bartzelonako esnea asto pixa da


"Bartzelonan edaten den esnea, zerri eta balea koipez eginga da". Arraroa baldin bada ere, berri hau zabaldu du EFE berri agentziak.

Bartzelonako Higiene Institutuak esan du zeintzu diren likido arraro horren lehengaiak edo materia primak: "zerri eta balea koipea, eta agian, asto pixa... edozein gauza, behi esnea baino".

Dirudienez, astoaren pixak esnearen dentsitatea du, eta horrela, laborategietan zenbait prozesu eginez, esne antzeko likido bat egin ahal da.

Noski, astoaren pixari zerri koipe pixka bat ere bota behar zaio, gurlna lortzeko.

Tarradellas oso posibilista izango da, eta oso politiko gainera, baina ez dakit horrelako "esnerekin" luzaro biziko den. Agian, berak ez du edango. Izorra daltezen besteak!



Bahiketa egin eta dirua etorri ikastoletara

Gipuzkoako Hezkuntza Ministeritzako delegatua bahitu zuten bezain laster, ikastolek 300 miloi hartu zituzten Madriletik.

Denok dakigun bezala, dirutza hori lehendik agindua zegoen, baina gobernuak ez zuen entregatzen.

Azkenik, ETA (p-m-)k egin zuen bere ekintza eta berehala entregatu zuten dirua.

Parlamentarismo guztiak, elkar ikuska guztiak, alferrik izan ziren. Dirua prometatua egin zuen gobernuak, baina ez eman.

Garbi ikusten da, entsalada ondoren, purua sartu behar zaiela Madrileko agintariei. Hau da, elkar hizketa ondoren, kolpe eder bat.

Horrela bakarrik konturatzen baitira, Euskal Herrian engainuak sobra direla.

Euskal prentsa (Zeruko Argia eta Anaitasuna) ere zerbait pentsatzen hasi beharko da.

Baina gu ondratuegiak gara... eta "así nos luce el pelo".



Nafarroako eskuindarrak diru eske

Nafarroako eskuindarren ekonomia gaizki dabil. Benetan harrigarti baldin bada ere, horrela zioen "Pensamiento Navarro" egunkariak.

Nafarroako "Agrupación de juventudes tradicionalistas" taldeak ohar bat argitaratu du egunkari horretan, lokal bat alkitatzeko dirua behar dutela esanez.

Hona hemen, inperioko hizkuntzan, ohar hori:

"La Agrupación de juventudes tradicionalistas de Navarra, ante la precaria situación económica en que se encuentra debido a que todos sus miembros son jóvenes de 15 a 25 años, y necesitando urgentemente un local donde poder reunirse, se ve en la necesidad de pedir una pequeña ayuda económica a todos los navarros que sienten dentro de su corazón el sagrado lema de DIOS-PATRIA-FUEROS-REY".

Orain arte, ezkerreko partiduek bakarrik zituztela diru problemak, uste genuen, baina ba dirudi, eskuindarrak ere berdin dabiltzala.

Nafarroako eskuindarrek "Dios-patria-rey-fueros" oihu asko egiten dute, baina diru asuntuan, zimurrak dira. Beti bezala. Aberatsak dira beti berekoiak.



Iñaki Zabaleta

Anakroniko omen

Duela zenbait hilabete, "DIE ZEIT" aleman astekari itzaltsu eta guztiz ezagunean, editorialtxo bat agertu zen lehen plaman Euskal Herriko gertakari buruz. Besteak beste, "anakroniko" zela zion, euskal Estatu bat eraiki nahia.

Hori dela eta, E. Knörr gure laguntzaileak honako gutuna egin zuen harako:

"Jaun-andereok!

Euskal Estatu lokabe bat eraiki nahi izatea "anakroniko" da "DIE ZEIT"-erako (30. alea, 1978). Eta nik, aleman jatorriko euskaldun honek, galde egiten diot neure buruari: Zergatik anakronikoa? Non dago ezarririk zenbat Estatu izan behar dituen Europak? Guri euskaldunoi irlandarrei ez bezala, adibidez— epea bukatu zaigu?

Jakina, nik uste dut mugak erauzi behar direla. Baina gure hizkuntzak eta gure kulturak ezingo dute iraun, Espainiak eta Frantziak gu zapaltzen gaituzten bitartean. Eta oso zaila iruditzen zait niri gaur ere, etxean lokabe izan, Estatu bat izan gabe.

PNV EUSKALTZAINDIAREN KONTRA

Euskal Estatutua gertatzen ari den batzordean, euskararen gaineko ardurara erabakitzailea Euskaltzaindiak eduki behar zuela aipatu zenean, J. J. Pujana, PNVren ordezkaria, horren kontra agertu zen, Euskaltzaindia ez dutela guztiak onartzen esanez. Agian Pujana jaunak bere kideen beste euskaltzaindian pentsatzen zuen. Nolanahi dela, Euskaltzaindiaren aldeko proposamena aurrera joan zen, E.E. eta E.S.E.I.rekin batera, paradokiko, PSOE eta UCD ere alde irten zirelako. Ikus dezagun, ikas dezagun.

EDONOR OTE IRAKASLE?

Ostegun arratsean. Telefono-deia: Estatu-eskola batetan euskara irakasteko lau irakasle behar zirela eta ea nik esaminatuko nituzkeen. Baietz.

Eguna etorri zen. Sei neska-mutil agertu ziren. Ahoz eta idatziz egin zuten esamina. Gero, etxean, begiratu nituen eta hiru ontzat eman.

Gaur, huts egin zuen neska baten kexa jakin dut zeharbidez: esamina oso zaila izan zela...

Hartu ditut orriak berriz eta honelako perla bikainak berehala topatu:

— *Etxe urdinan.*

— *Liburu hau 300 orrialde dauka.*

— *Apaiza hura berandu heldu zen.*

— *Axularko liburuak.*

— *Hiru andereño ikusi dute hori.*

— *Joan zaitez etxe hara.*

— *Dut 20 urte.*

Besterik, eta hori bezain larriagorik, bada. Ondoko esaldiak euskaratzen ez dakitenek irakasle izatea merezi dute?:

— *En el caserío de arriba.*

— *Con este juguete haremos una casa.*

— *Te he visto en la calle.*

— *Me tomaron por bruja.*

— *Ahora sé las lecciones.*

Eta abar eta abar.

Denbora luze-luzean, euskarak itxita eduki ditu ate asko, eskolan, administrazioan, kalean bertan... Orain, jakina, gauzak aldatzen ari dira. Baina edonor izango ote da irakasle? Ez dugu *gutxieneko* maila bat eskatu behar? Beste gaietan nahi-taezkoa dena euskararen zergatik ez? Zer esango genuke erdal irakasle batek horrelakoak esan eta idatziko balitu?:

— *Han traído bicicleta esta.*

— *Ayer vino el varvudo.*

— *Ziete camisas.*

— *Mi padre me traje desde Orio.*

— *La comida de tres hijo.*

— *Mañana vinimos a Bilbao.*

— *Gracias a un tío sé vaco.*

Nik ez dut onartzen ez ulertzen nola nahi duten zenbaitek bi neurri erabili: bata erdararako (edo berdin Matematika zein Musika...) eta bestea euskararako.

Ordua da, nik uste, euskararekiko geure epelkeria, axolaeza eta errazkeria uxatzeko. Bai eta umekeria guztiak. Eta azken hau esaten dudanean, behin Euskaltzaindiaren esamin bategatik entzun nuena dut gogoan: "faxismoa" zela esaminak egitea (!).

Euskara ikasteko eta lantzeko, jakina, ez dugu bide gehiegirik izan. Hestutu ere ezin dugu gehiegi hestutu irakasle-gaia, edo andereño izan nahi duena, ikastolan, Estatu-eskolan edo arrats-eskolan (mesedez, ez dezagun esan "gau-eskola"!). Baina gehiegi hestuzetik edonor irakasle izatera tarte zabala bada. Joka dezagun horretan zentzudun eta zuhur.

E. Knörr

ARRATE IRRATIA ISILDU

ARRATE IRRATIA isilera-zi egin dute. Ez da bere borondatez mututu. Gipuzkoako Gobernari Jaunak eman dió, hitzik ez egiteko agindua.

Arrate Irratia 1959an sortu zen, eta Eibarren eta inguruetako herrietan entzuleria polit bat lortu zuen. Baina 1964ko Maiatzean, Fraga jaunari esker, isildu egin behar izan zuen.

Aurtengo ekainean, Don Pedro Gorostidi zuzendari jaunak birtzabaltzea lortu zuen; baina hazilaren 16an, berriro ere isiltzeko ordena eman diote. Hauxe da Arrate Irratiaren historia ilaburra.

Euskal prentsak ez du ihardun luzerik egin arazoaz. Nonbait, hasi berria ere bai, eta erdi ezezaguna edo zen oraindik Arrate Irratia.

Guri, berriak pena handia eman digu, batez ere irrati euskaldun bat zelako. Horregatik isilera-zi dute hain zuzen ere, euskalduna zelako eta ez amateur batzuren empresa.

Edo eta ekainetik honantz bonbak jartzen ibili ote da? Ez, Arrate Irratiak ez du bonbarik jarri, baina euskaraz egiten zuen isildu ere egin gabe, eta horrek min ematen du bai Gobernu Zibileak eta bai Madrilen ere.

Horixe duk antena behar bezala probetxatzea, halajantetan!

MARTIN VILLA MINTZO

Martin Villa jauna mintzo denean, belarriak adi izaten dira eta mikrofonoak kili-kiliatarako gogorik gabe.

Martin Villak Gutierrez Mellado Lehen Presidentorde jaunarekin ostera bat egin berri du Euskal Herrira.

Ikustaldia egin eta igande arratsalde, Sondikako aireportuan zen, Madrilera eramango zuten hegazkinaren zain.

Modan dugun terrorismoaz galdera bat egin zioten, eta Martinek luzamendutan ibili gabe:

"Terrorismoaren monopolioa estatuarena da" erantzun.

Hori horrela bada, terrorismoaren propaganda—apologia—nork egiten ote du?

AUTONOMIA ORAIN

Ba dugu, garaia baitzen, hegoaldeko autonomiarako lehen aurreproiektu ofiziala; burutu dutenak hegoan

oraingoz populazioaren gehientsuaren ahotsa duten indar politikoak. Batzuk, Herri Batasunak esaterako, ez du nahi izan parte hartu batzordean.

Azterketa sakon bat merezi du, dudarik gabe, baina indar politikoen erlazioa dagoen arauera, globalki ontzat eman daiteke oraingoz.

Jakina, ezkerrek oraindik bide handia egin behar dugu. Esaterako aldatu beharra dago etorkizunean, lege elektoralak, eta euskal parlamentu batu eta gogor bat eraiki.

Baina Nafarroako egoera ezagaturik, dagoen bezala, lehen urratsa dugu. Ez dudana ikusten hain bidezko, eta gehiago abertzale ikuspuntutik aztertuz gero, HERRI BATASUNAREN joera. Konturatu gabe, azken batetan Nafarroako UCDrekin autonomiaren kontra bihurtu daiteke. Eta interes zentralistak horren zain daude orain.

Nahiz eta subjektiboki bestea izan helburua, objektiboki orain lortu nahi den autonomiaren kontra posizionatu da.

Eta hemen orain helburua, autonomia lortzea lehen bait lehen eta zabalena dugu. Herriak burruka bide asko erabiltzen jakin daki, eta produzitzen duten ondorio positiboak aprobetxatzen jakin behar dugu.

Helburua boterea lortzea dugu. Eta bide *guztiak* onak dira. Eta orain konstituzioko bozketen errenta ona dugunean, dugu, mementurik aproposena autonomia zabala izateko. Munizipalen ondoren, batez ere Araba eta Nafarroan asko gehiago ez da aldatuko indar erlazioa, eta aldatzen bada hainbat hobe. Gero ere, beharrezkoa izanen dugu, autonomian sakontzeko independentziaren bidean.

Baina oraingo egitekoa, autonomia hau defendatzea dugu, eta metodoetaz ez dezagun filosofia merkerik egin. Zeren ETA eta gobernuaren arteko elkarriketarik suertatuko balitz, eta autonomia neurri zabalak lortu, ez genuke aldarrikatuko lehendabizi hauteskundeak nahi ditugula, baizik eta defendatuko genituzke konkista haik, eta burrukan jarraituko, hauteskundeak eskatzen edo beste gauza bat.

Beraz, demagogiarik ez. Etorkizuna jokoan dago eta zentralismoaren kontra, denok baturik.

Joseba Agireazkuenaga

1979

urtarrila enero

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

otsaila febrero

	1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				

martxoa marzo

	1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

apirila abril

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

maiatza mayo

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

ekaina junio

		1	2	3		
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

IKASTOLA

1979

uztaila julio

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

abuztua agosto

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

iraila septiembre

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	

urria octubre

	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	
29	30	31					

azaroa noviembre

						1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11			
12	13	14	15	16	17	18			
19	20	21	22	23	24	25			
26	27	28	29	30					

abendua diciembre

							1	2	
3	4	5	6	7	8	9			
10	11	12	13	14	15	16			
17	18	19	20	21	22	23			
24	25	26	27	28	29	30			



TERUNO
ARGIA

anaitasuna

OHARRA:

Urte berria dela eta, ANAITASUNAK zenbait ohar egin nahi die harpidedunei:

-1977-1978 urteetako harpidetzak ordaindu gaberik dituzten Espainia, Europa, Afrika, Asia eta Ameriketako harpidedunei, ANAITASUNAK ez die ale gehiagorik bidaliko 1979.eko Urtarrilaren 1etik.

-Gure aldizkaria hartzen jarraitu nahi dutenek, beren harpidetza ordaindu behar dute berriz, Bilboko Bankuaren Karmeloko agentziako 497000137 kontura, posta giroz ANAITASUNA ren bulegoetara, Zabalbide 68, Bilbo 6 edo 495 Posta kutxara.

Atzerriko harpidetzaren prezioa 1.500 pezeta izanen da.

-Hemen esandako guztiak ez du baliorik Euskal Herriko harpidedunentzat, zein Ipar ala Hegoaldekoak izan.

-Azken urtean zehar, gertaturiko atzerapen, errakuntza eta nahaste guztiengatik, harpidedunen barkamena eta konprenitzea eskatzen dugu.

ANAITASUNA.

Hemen edo han, b

Zenbat aldiz ez ote dugun entzun behar izan euskaldunok, gure oraingo jarrera guztiz okerra dela, datorren demokraziarako bidean oztopoak ipintzea besterik egiten ez baitugu? Moeta askotako eritziak entzun ditugu, beste aldetik, demokrazia horrek ekarriko dizkigun abantailez; hala ere, argi ikusten da, Euskal Herrian hortik espero dezakeguna. Dena den, eta jadanik suposatzen duguna konfirmatzeko, ondo dago, noizean behin, Europako beste estatu demokratikoe-tan gertatzen dena aztertzea.



Oraingo honetan, Frantzia demokratikoaz ihardungo dut.

Denok dakigunez, hain zentralista den estatu honetan, zapaldurik dauden hainbat Herri, esnatuak daude jadanik, dagozkien eskubideak eskatzen dituztelarik: Okzitania, Britainia, Korsika...

Herri hauetan guztiotan, burruka aurrera doa, bai kultur mailan, eta baita politikaren mailan ere; eta nahiz eta frantses askok pentsatzen duten, beraien aberri maitean preso politikorik ez dagoela, Herri horietako burrukalari asko gartzelan daude; hori da, adibidez, orain, preso politikoen esta-

tutua eskatzeagatik, gosegreban dauden 27 britainiarren kasua. Espero ahal zenez, ekintza honi ez zaio, ez prentsan eta ez beste komunikabideetan ere, inportantzia handirik eman, baina presoek bere jarreraren segitzen dute.

Hori gutxi balitz, ba dute bertainiarrek zergatik kezka momentu honetan: abenduaren hasieran, preso horietatik bi juzkatuak izango dira, hain bitxia den "Cour de surété" delakoan.

Hori guztiori kontutan harturik, eta mementua oso egokia zela kontsideratuz, preso britainiarren aldeko jaialdi bat antolatu zen Parisen, hazilaren

13rako, COBAR taldea antolatzailea zelarik. Jaialdian Stivell, Glenmor eta Servat-ek kantatuko zuten, eta aldi berean, hara joango zèn jendeari preso politikoen egoera zein den esango zitzaion.

Baina zein edo nortzu dira COBAR taldeak?

Britainian, aspalditik dago jende asko arazo nazionalaz sentsibilizaturik, eta presoak gartzeletara joaten hasi zirenean, argi ikusi zen preso horik sostengatzearen beharra; hortik, herri eta hiri batzutan talde batzu eratu ziren.

Talde horiek modu batetara edo

erdin da

bestetara, lanean segitu dute, eta gaur daudenak COBAR izenekoak dira, hau da, "Comités bretons anti-repression" direlakoak.

Taldeok, bai Britainia osoan, eta bai Parisen ere, funtzionatzen dute. Beraien artean nahiko autonomia dago, baina hala ere, ba dago denen arteko koordinakuntza.

Pariseko COBAR-a izan da, prezeski, aipatzen nuen jaialdiaren antolatzailea.

Baina bihur gaitezen harira, jaialdi famatu horren egunera.

Jaialdirako baimena eskaturik zegoen arren, prefekturak ez zuen eman, eta beraz, jaialdiko eguna heldu zen, egiteko posibilitateak oso txikiak zirelarik. Baimena ukatzeko arrazoia, kalean istiluak sortu ahalko zirela zen.

Hazilaren 13an, kazetaurreko elkarriketa bat antolatu zen, zeudèn berri guztiak prentsari emateko. Elkarriketa hori aurreratu ondoren, eta jaialdiaren lekuan eta ordu berean, manifestaldi batetara deitu zen, hain arbitrario zèn neurri horren kontra agertzeko.

Baina Frantzia oso demokratikoa denez, hain zeuden halaber, ordu bat lehenago, C.R.S. pilo bat, inguruko kale guztiak kontrolaturik edukiz. Hala ere, 2.000 pertsona edo bildu ahal izan ziren, eta normala denez, kargak, kolpeak eta abar egon ziren.

Kontzentrazioan ba zeuden hiru kantariak ere. Eta hor bertan, propaganda banatzen ari zirèn beste batzurekin, detenituak izan ziren, nahiz eta hiru ordu beranduago, eta multa bat pagatu ondoren, askatuak izan.

Argi dago, ba, nola sortzen diren istiluak, eta noren erruz.


Hurrengo eguneko prentsan, ez zen ezer esan adierazpen askatasunaren kontra zihoàn hori guztiorri buruz, ezkerreko egunkari batzutan (ez serionetan noski) ez ezik.


Baina ez pentsa, hemen inor harritu denik gertaera guztionatik; entzun ahal den gehiena, zera da: ah, baina Frantzia preso politikorik al dago?

Debeku honen aurrean, COBAR prest dago beste jaialdi bat antolatze-ko, baina ez da erraza izango, hori jua-mendua baino lehenago egitea. Eta gainera, zergatik ez dute debekatuko berriz?

Dena den, mementua oso garrantzitsua denez, ordo probetxatu behar-ko dute bere burrukaren zergatikoa publikoki azaltzeko.

M. J. Esteban





Masak ala eliteak? (I)

Lan honekin, mendeetan zehar masek historiaren erakintzan izan duten eragipenari buruzko artikulu sorta bati hasiera eman nahi diot. Azken aldi hauetan, alde guztietan politikoak sortzen dakusagu. Guztiok eskubide ugari damaiote beraien buruari. Eta gainera, beste pertsona batzuk eginiko aktuen epaikari gisan eraikitzeke lotsagabeberia dute. Beste batzuk, gehienak, Euskadiko politikaren protagonistak bakar gisan ikusten dute beraien burua eta medio guztiez herriaren nortasunagatik gainez eginak izatea eragozten ahalegintzen dira. Zergatik diote beldur herriari? Zergatik nahi dute herria azken 40 urteotan bezala jarrai dadila, lider politikoak bakar-bakarrik aldatuz? Beraien baitan herriaren indarra ezagutzen dutelako, aldaketa guztien egile herria dela soilik dakitelako. Historiak frogatuko du.

Marxista teorien arazorik oinarrirenetariko bat, eta historian zehar zalantzarik gehien sortu duenetariko bat, Historia aldetik masek buruturiko eraginarena dateke. Baina zer dira masak? Beraiekin kontaktuan dauden zenbait liderren ideiaz mugituriko pertsona talde bat ala, alderantziz, masak dira beraien ideologia sortu eta burrukara, higidurara abiatzen direnak? Historiaren bilakaera, pertsonaia jakin batzuren ekintza eta erabaki multzoa ala masen bilakaera al da? Hauk dira gai polemiko honetaz egiten ditugun galdere-tariko batzuk. Masek historian duten eragina, urteetan barrena pentsalari ugariaren gogoeta gaia izan da eta, batez ere XX. mende honetan izugarritzko garrantzia du, masa mobilizapenek lortu duten indarragatik. Zeren eta, azken mende honetan, igarotako mendeetan irudiezinezko botere koten lorpenarako masa kopuru eskergek burrukatzen baitute. Azken mende honetako historia, masen ihardueraren historia da, bakea, demokrazia eta aurrerakuntza lortzeko masek libratzen duten batailaren historia da. Batzutan garaile eta, tamalez, aldi ugarietan faxismoaren eta kapital haundiaren indarpean porrot eginiko batailaren historia. Gure esenplu berbera da masa mobilizapenak-boterea harremanen adibiderik argienetarikoa. Masa mobilizapenek, beraien etengabe-ko burrukaren bidez presoak gartzelatik kaleratzea lortu dute. Presoen kaleratzea masek lortu dute, eta beste inork. Eta atera dituzte, presoak ere masaren zati direlako eta masek beraien abangoardia bezala onartzen dituztelako. Ezein paktu, ezein negoziaketa, ezein hitzarmenek ez du lortu; masa desjabetu baina askatasun goseti baten adore eta ahalegina izan da soilik bere burrukarekin garaipen partzial hau lortu duena. Eta masak izango dira, beraien kabuz eta bizi ditugun denborekin adorde eta zapaltzaileek erabiliriko medioei kontrajarriak izango diren medio egoki eta eraginkorren erabileraz, Euskadiren sozialismoa eta independentzia lortuko dutenak, une orotan mundu aske eta trabagabearen ideiala gogoan izanik.

Historia, masek egiten dute. Historia zabaltzen, aldatzen, mugitzen doa. Aintzinatean, sozial aurrerapen eta aldaketaren oinarrizko indarrei buruzko ohizko pentsaera, errege, jeneral eta beste horrelako pertsonaia agerien ekintzetara mugatua zegoen guztiz. Denbora horietan, historia gizon

handiek egiten dutela onartzen da. Beraz, historiaren bilakaerarekiko antzinateko pentsaera honela labur dezakegu: "Mundu honetan sorturiko gauza oro, funtsean, munduraturiko gizon handien pentsakizunen ondorio da, pentsakizun horien mamitze eta praktikatzea. Beraien historiak osatzen du benetan munduko historia osoaren arima". Teoria tipo honek, guztiz arrazista eta diskriminatzaile diren teoria talde bat osatzen du. Teoria hauek, antirrealismo kopuru handi bat edukizetik at, herria "ahalgutidun eta perfektu klasearen boterearen meneko bizi behar duen azpiko klasea" izatera predestinaturiko "masa amorfo", "masa pasibo" batera mugatzen dute. Zapalketa hau orokorra izango da historian zehar. Zapalketa tipoa funtsezki berdina izango da, baina metodoak aldatuko dira, masek botere koto gora-goak irabazten diharduten heinean. Teoria tipo hauek ez dute onhartzen masek burrukan aurreratu eta dagoen zapalketa sistema gainditzeko besteko ahalmena izateko posibilitatea. Oro har, ez dute gizarte berdintsu bat asmatzen, non gizonaren gizonarekiko zapalkuntza ez den lege nagusia izanen. Horrela gertatuko ez balitz eta "masa ahalgabe" hori, "masa pasibo" hori kontestatario bihurtuko balitz eta zapaldu kontzientzia argi batekin askatzea erabakiko balu, orduan iskanbila eta istilu bidez gizabidearen zutarririk funtsezkoenak hondatu eta dena, sistema barne, suntsitu nahi duen "turba" edo jendetza baten aldatuko lukete. Beraz, klase explotatzaileen ideologoen, herriko masek eta indibiduoek historian duten eragina ardura singular batekin itxuragabetzen dutela dakusagu.

Azpiratzaile klasea, burjesia, faktore garrantziduna da darabilgun arazoan bera bai da klase menperatuek jasaten duten diskriminazioaren eragile eta herriaren protagonismoaren itzalketa, masa herrikoien protagonismoaren itzalketa onura gehien duena. Masa mugimendua lurperatzea nahi du eta horretarako, gizartearen bilakaerarekiko hamaita teoria sortzen du. Teoria guzti horiek berezitasun bat dute: beraietan, pertsona isolatuak, beti klase dominatzaileen kideak, dira historiaren protagonista eta motore. Teoria guzti hauetan historian zehar masek duten eragina hutsa eramana da eta herriaren protagonismoa guztiz suntsiarazia, zeren eta, burjesiak, bere interesen alde jokatu badu, herria sortez menpetasunera bihurturiko "masa itsu" bezala agertu behar duela daki. Beraiantz herriko masak ez dira prozesu historikoaren objektu pasibo baizik edo eta, kasurik onenean, "gizon haundien": erregeen, jeneralen, legistatzaileen,... borondatearen egile ezjakin. Subjetibista teoria horiek ez dira mugatzen explotatzaile eskukada batek, biztanlegoaren gehiengoa zapaltzen duen erako errejimenak justifikatzen. Benetazko demokraziaren, ez orain ezarri nahi duten burjes demokrazia, suntsitzera zuzenduriko barne politika baten eta faxista sistemen ezarpenaren alde ere argumentatzen dute. Sistema horiek dira prezeski, baizten dute ideologo erreazionariak, gizon handiei historia "egiteko" eta beraien borondatea herriaren masa ezjakinen parte hartze gabe inposatzeko, oztoporik gabeko bidea eskaintzen diena. Ideologo burjesen artean eta beraz, burjesian, indibi-



duoak historian duen paperaren kontzepzio subjektibistaz gainera, fatalista ikuspenak ere bere tokia du. Ikuspuntu honen arabera, gizonek ezin dute abialdiarekiko eragipenik izan. Teoria fatalista, subjektibistak beste beharatu du herriko masek gizartearen aurrerapenean duten garrantzia. Biak, bata zein besteak, sozial aurrerapena, miloika langileen ekintza eta burukatik at sortzen denaren sasikonzeptuan oinharritzen dira. Biak, bakoitza bere erara, langilearenganako gutiespena interesatzen zaien klase hurrupatzaileen interes ideologikoak eta helburuak zerbiztatu dituzte. Herria, ezjakin, era propio eta logiko batez pentsatzeko ezgai bezala aurkezten duten eta errazki beldurra gorrotoan eta gorrotoa benerazioan aldatu duten teoria hauk dira burjes filosofia zertzen dutenak. Filosofia klasista bat, non burjesia sozial aurrerapen eta aldaketaren protagonista dela aldarrikatzen den, desagertzera, barne kontraesanen kausaz hiltzera kondenatua dagoen filosofia bat da. Herria hasia da kontraesan horik ikusten eta Leninek esan zuen bezala, konturatu da "politika serioa masek egina izan daiteke bakarrik" esaldiaren garrantziaz.

Herriek, Herria protagonismoa hartzen, herri sentitzen, klase zapaldu sentitzen eta beraz klase kontzientzia lortzen hasia den denbora bizi dugu, herria zerbait geldi, misterios, bere kabuz ekintza ahalmen gabea eta liderren esanetara bakarrik mugit daitekeen zerbait bezala ikusten duen pentsamoldea baztertu behar duen denbora. Gure denboran, klase zapaldu baten kide direla konturatzen diren guztiak lider bihurtzen dira. Liderren agerpena lege historikoari hauste-

zinki loturik doa. Gizartean beti daude gaitasun eta talentudun gizonak, baina beraien azalpen eta sorpenerako baldintzak, kualitate jakin batzuez hornituriko liderren sozial beharra sentitzen denean bakarrik betetzen dira. Hau iraultzaile gorakada handien aldietan eta iraultzetan argiro konstatazen den zerbait da. Iraultzaile goraldietan, milaka eta milaka pertsona dira lehengo errejimenaren baldintzen kausaz ordurarte anonimatoan egonik, arazo publikoen zuzendartzara heltzen direnak, horrela beraien talentu eta balioa frogatuz ezein protagonismo asmo gabe. Klase bakoitzak bere zuzendariak hautatzen ditu, bere sozial egoera eta izango dituen betebeharren arabera. Langile klasearen buruzagiek, adibidez, fermutasun eta iraultzaile ausardia behar dute, proletargoaren misio historikoaren izaerarekin kontsonantzian: prestakuntza teorikoa, langile klasearen burruka teoria zientifiko batetan oinarritzen balta: masekiko lokarri sendoak; masa mailako erakuntza lanerako esperientzia eta gaitasuna; fedea langileen indar kreatiboan; ez bakarrik erakutsi balzik eta baita ere beralengandik ikasteko gaitasuna, etabar. Eta munduko klase zapaldu guztia lider bakar baten bihurtzen denean garaipena helduko da. Liderrak ugari dauden denbora da, baina lider denak dira guti, denok izan behar gara lider, horrela lider bakar handi bat osatzeko eta botere oinarritzeko eta bigarren mailako protagonista izan gaitzen sozialismoaren eraikintzan. Horrela ba, masa zapalduaren osagarri bakoitzak bere funtsezko betebeharra du sozialismorantz daraman bidean.

Emakume bertsolari

Ahaztutako emakume bertsolariak

Mendiak ura bezala nik maite ditut bertsoak ttikitatik bildu ninduen hortarako amodioak gaur aipa nahi ditut hortaz neure sekretuak pixkabat azterturikan gaur arte pasatuak.

Bertsolarien kontra ez esan inork ezer ere bestela ez harritu nik defenditzea azken arte neure kulturaren ama dira hori badakizute eta ez dakiten guziak azkar jakin bezate.

Bainan gaur badituz hortaz zenbait gauza esan beharrik eta gainera tristuraz bihotza guztiz beterik zenbat amona bertsolari sukaldetan enterraturik Euskal Herrian ahaztuta utzi dituzu izan gaberik.

Emakume izatea delitosa izan noski izen gabe hartu zaitun lur honek ondo badaki Zuk ekarri zenituen semeak gaur dira bertsolari bainan zure alaba guziak sukaldean daude oraindik.

Zu enterratu zaituen destinoa det madarikatzen eta hori ez dela matxismoa gainetik digute esaten edo eta emakumeak ez ote gara normalak sortzen? Bada ez bada ere hasi behar dut zuen izenak bilatzen.

Maite izan dut eta maite dut nik beti bertsolaria bainan ez diet barkatuko zutaz horrela ahaztutzia ez dago eskubiderik zuri ateak horrela itxitzia zure sukaldera noa orain lore gorri bat utzitza.

Bertsolariak gionezkoak ohi dira. Emakume bertsolariak ez dugu ezagutzen. Zergatik? Ez ote du izan euskal emakumeak hortarako ahalmenik edo? Gizona plazara, emakumea etxera, hona hemen galdera horren erantzun bakarra. Zeren seguru asko, anitz bertso asmatu eta kantatuko zituzten emakumeek baina ez dute horik azaltzeko plaza edo sagardotegirik izan. Etxe barnean eta areago emakumeen kolkoetan, usteldu dira emakumeen bertso eta kantak.

Gaur, emakume bertsolari izengabeko horietako bat dugu aurrean. Berak esaten duenez, gizona izan balitz plazatan ibiliko litzateke. Baina geure euskal matxismoak zapuztu egin zituen neskatxa honen desioak eta nahiak. Bere bertsoak eskutan dauzkagula beragana jotzea pentsatu dugu emakumeen ahotsa behingoz plazaratzen hastea nahi genukeelako.

A: Zerk bultzatu zaitu bertso hau idaztera?

—Askotan jarri ditut bertsoak, nahiz eta paperean gelditu ez... Neretzako bakarrik askotan aipatu ditut holako gauzak. Zergatik? Ba, arazo hori oso barruan sentitzen dudalako.

A: Noiztik duzu bertsoetarako zaletasun hau?

—Nik horrela ezagutzen dut neure burua. Gogoratzen naiz, zazpi edo zortzi urte nituela neure aitarekin bertsolariak ikustera joan nintzela. Oso gogoan dauzkat egun hartako pasadizoak ezta... zein poza esan zidanean bertsolariak entzutera joango ginela! Baina betidanik somatu dut afizioa...

A: Etxeko giroa beharbada?

—Bai. Batez ere Gabonetan, festetan, artozuritan eta... Han ezagutu ditut nik emakumeak oso ondo bertsoetan egiten zutenak. Baina beti entzun diet etxean. Artazurik baserrietan, adibidez, jai kutsua zuen. Han abesten ziren bertsoak, kantu zaharrak eta ipuinak. Orduan, emakumeek, bertsoak gustatzen zitzaizkienek, han zeukaten posibilitate bat edo asmatzeko. Beharbada, zailtasun handirekin. Piska bat, niri gertatu zaidana gertatuko zitzaien... etxean bakarrik bertsoak kantatzea edukiko zutela. Komentario asko, gizonen aldetik, entzun izan ditut. "Nola egiten duen bertsoetan emakume honek, nahiz emakume izan!"

A: Ez al ziren inoiz plazaratzen?

—Nik ez dut bertsoetan emakumerik ezagutu. Inoiz ere ez. Eta ez dut uste askok ezagutu zuenik. Hori emakumeek ez zuten egiterik. Gizarte bat, matxista denean, kulturak ere matxista izan behar du. Zein emakume joaten zen sagardotegi edo taberna batetara? Emakumeak etxean, sukaldean...

A: Gainera, ez al da Bertsolaritza gizonen zeregin edo asuntu bat bezala hartzen?

—Bai. Inork ez dizu esaten, "ez ezazu hori egin", baina gizarte osoak begiratu arraro batez begiratzen zaitu. Azken aldean, bertsoak entzutera gionezkoak edo emakumeak joaten dira, baina ni akordatzen naiz urte asko ez dela, segun zein orduan, gizonak bakarrik joaten zirela... Eguerdian, adibidez, oso emakume gutxi ikusiko zenuen bertsoak entzuten, bazkari ordua zela ta... Nere edadeko neskei eta horrela, ez zitzaien bertsoak gustatzen. Ez zirelako haientzat eginak, zalantzarik gabe. Orduan, bertsolaritza, gionezkoen gauza bat zen. Gizonak egina eta gizonentzako.

A: Buelta gaitzen zeure kasura...

—Ni gogoratzen naiz, 14-15 bat urte arte, askoz ere erraztasun handiagoa nuela orain baino. Ez dut zalantzarik jartzen, edade hortatik aurrera nik izan banu plazara irtetzeko posibilitaterik eta orduan behar nuen bultzadaxo bat izan, gaur seguru asko, plazatan ibiliko nintzateke. Oso ezaguna izango zen neretzako giro hori. Gaur ez zait hori gertatzen, prozesu guztia moztu zen. Orduan bai, baserrian bizitzen nintzelako, eskolako bidean edo mendian nenbilela zerbait egiten, edozein tokitan, banuen bertsoak kantatzea, jo eta ke aspertu gabe.

A: Inork ezagutzen al zuen zeure zaletasuna edo...



batekin elkarrizketan



Ez dugu emakume bertsolaririk ezagutzen. Baserri lanetan parte handia zeramaten emakumeek, ez zeukaten, gizonak bezala sagordotegi eta tabernetara, bertsotan agertzerik.

—Bai, etxean ezagutzen zuten.

A: Ez zintuzten bultzatu...

—Ez. Bueno, bultza ninduten lehen esan dudan bezala. Gabonetan, adibidez, neure osaba batekin, aitarekin, aritzen nintzen eta orduan berotzen ninduten. Hortik aparte, inoiz inork ez nau bertsolaritzara bultzatu.

A: Egun, ahalmen hori errekupeztatzea, zaila izango al litzaizuke?

—Bai, oso zaila. Hori gorde behar da. Landu behar da, beste gauza guztietan bezala. Urtetan, ezer egin gabe uzten baduzu, prozesu hori moztzen

baduzu, gero hasten zarenean, berriro zerbait egitea nahi duzunean, izugarriko hutsunearekin aurkitzen zara. Orduan bai. Hamar urtez, adibidez, plazaratu nintzen beste mutil batekin neure hauzoan... Pozik ateratzen nintzen ni orduan. Ez nuen lotsarik. Hura zen edadea hasteko. Orain berandu da. Orain oso moztuta sentitzen naiz, ez daukat lehengo erraztasunik.

A: Bertsozalea zarenez gero, zer iruditzen zaizkizu emakumeetaz bertsolariek botatzen dituzten bertsosak?

—Bertsolaritzaren gaietan emakumea gaizki tratatua dago. Jeneralki behintzat. Bertsolarientzat, emakumea izan da etxeko ama on hura, ez dakit zenbat haurren ama eta lan asko egiten duena. Baina maila hortan utziz beti. Edo bestela, kaskarina, zoroa, ardozalea, pintatu gaituzte emakumeok! Edo emazte "onak" ez direnak, senarra gaizki tratatzen dutenak... ba dakizu... Ama gaixotik pasatzen dira beste tipo hortara...

M. A. Landa

Kontseilu nagusiaren

Kataluniak, bere Gobernu autonomo-
rako legezko erakuntza egitean, aurreko
mendeetan ere izan zuenaren izenaz
bataiatu zuen: Generalitat de Catalunya.
Izen horrek, horretara, oraina aintzina-
ko tradizioarekin lotzen du. Ez da hori
gertatu, ordea, Euskal Herrian. Izan
ere, joandako mendeetan, XI.ean Iruñe-
ko erregeren manupean egon bide zen
Euskal Herriko Erresuma hartaz landa,
ez da gurean erakunde politikorik izan,
euskal herrialde guztiak bere baitan bil-
du dituenik, guztiek nazio berbera
—Euskal Herria— izateko kontzientzia
izan arren, Axularrek berak XVII men-
dean azpimarratzen zuenek, bakoitzak
bere legeak —foruak— baitzituen.

IZEN BATEN BILA

Hortaz, bidezkoa zen izen bat, nahiz-
taez berria, asmatzea. Askori gehiago
gustatuko litzaigukeen beste egoera
batetan izan bagina, erakunde horri,
beharbada, Errepublika —Euskal Herri
Errepublika, kasu— izena ezar zeki-
keen, baina bistan dagoenez, ez da hori,
ez eta hurrik eman ere, oraingo parada.
Autonomiaurreko gobernu horretarako,
horrela, parlamentariak Consejo Gene-
ral del País Vasco izena aukeratu zuten,
laburtu nahirik Consejo General Vasco
gisa ere aipatua izan arren.

Hasteko, eta Kataluniako Generalitat
edo eta Galiziako Xunta-ren kide den
gobernu horrek bere jatorrizko izena,
besteetan ez bezala, erdaraz asmatua
du, baina handik gutxira, Kontseiluak,
euskarari ofizialkidetasuna emanik,
bere aktak eta gure hizkuntzaz ere egi-
tea erabaki zuenetik, izen hori euskaraz
ofizialki nola esan planteiatu zen.
Hasieran Euskal Kontseilu Nagusia era-
bili izan zen, baina honetarako eta eus-
kararekiko gerta zitezkeen problema
guztietarako, Karlos Santamaria jauna-
ren eskariz, Euskaltzaindiagana lagun-
tasun bila joatea erabaki zen. Horrela
ba, beroni euskal itzultzaile bat eskatu
zioten —Ajuriagerra defuntuaren kezka
larriak gora behera, Kintana izan ez
zenal— bai eta zenbait izenen euskal
itzulpena ere, Consejo General del País
Vasco-rena haien artean.

EUSKALTZAINDIAREN ITZULPE- NA

Eskatu bezala, Euskaltzaindiak
Kontseiluari kasu bietan eskaini zion
eskua. Itzultzailea, oso oker egon ezik,
Martin Ugalde idazle, kazetari eta eus-
kaltzain laguntzaile ezaguna izan zen,

ardura horretarako, arrazoi askorenga-
tik, ezin egokiagoa. Eskaturiko izenaren
itzulpenaz, bestalde, Euskaltzaindiak bi
proposatu zituen: Euskal Herriko Kon-
tseilu Nagusia eta Euskal Herriko Kon-
tseilu Orokorra, lehenari —orokor hitza-
ren berritasun kutsuagatik edo— hobes-
pena emanik. Eta horixe izan zen, hain
zuzen ere, kontseilariak hasieran onartu
zutena: Euskal Herriko Kontseilu Nagu-
sia, Kontseiluak aurretik zerabilen Eus-
kal Kontseilu Nagusia hartatik ez urrun.

JELKIDE BATEN ESKUA

Izen hori praktikan onharturik zegoe-
nean, ordea, norbaiti, bere aldetik, per-
tsona partikular bati izen horren egoki-
tasunaz galdera egitea bururatu zit-
zaion, eta galdetuak, su eta gar, Eusko
Kontseilu Nagusia ez beste izan behar
zuela erantzun. Pertsona horren hospe
eta omena zela eta, Euskaltzaindiak
eskainitako itzulpenaren lekuan, bestea-
rena hobetsi zen Kontseiluan.

Jakin, ba dakigu pertsona hori PNV-
EAJkoa dela, eta ez bageneke ere izena-
ren hautapenak berak ezin argiroago
salatuko liguke. Izan ere, ez da inolako
sekreturik delako eusko edo euzko hori
alderdi horretakoen artean izan ezik, ez
dela gaur inon erabiltzen, eta izen aski
markatu horren proposapenak iturbu-
rua, Euzko Alderdi Jeltzalea hain
zuzen, garbi derakuskigu, darion ukae-
zinezko sektarismoaz.

EUSKAL ALA EUZKO?


Lehen ere mintzatu naiz honetaz, bai-
na gorrik okerrenek ez jabetzearen atxa-
kia atera ez dezaten, berriz esango dut
oraingoan ere. Euzko hitzaren historia,
laburra bezain ezaguna da. Euskal His-
toria zaharrean euzko ez da behin ere
azaltzen. Lehengoz 1821.ean agertu
zen, Wilhelm von Humboldt-ek Berlinen
alemanez argitaratu zuen liburu bate-
tan. Hartan, euskara hitzaren etymolo-
giaz ari zela, hura agian eusko delako-
tik zetorkeela zioen, hori ezin frogatuz,
ordea. Lan horretan oinharriturik, edo
eta bere baitarik aterata, 1902.ean (due-
la 76 urte, beraz) Sabino Arana-Goirik
Euzko izeneko artikulu batetan hitz hori
berragertu zuen, bere ustez E(g)uzki-
tik zetorrena, aintzinako euskaldunak
eguzkiaren adorazaitzat edo harturik.

Gaur inork seriozki ezin onar ditzake-
en asmakizun horietan sarturik, Ara-
nak bere nazioarentzat, Euskal Herria-
rentzat, aspaldidanik eta herri jatorriz-
zeukanaren orde, beste bat proposatu

zuen: Euzkadi; era berean, euskaldune-
na baztertirik, euzkotarra jarritz. Izen
aldaketa honen funtsa zera zen, Arana-
Goiriren planteiamendu arrazista, hiz-
kuntzari begira zeuden euskaldun eta
Euskal Herriaren lekuan, berak asmatu-
riko euzko horrek, arrazari, odolari
begira egon nahi zuten euzkotar eta
Euzkadi bultzatuz.

EUZKOTAR HITZAREN ZENTZU ARRAZISTA

Norbaitek orain bestelakorik sinesta-
razi nahi badigu ere, euzkotar hitza ez
zen asmatu erdarazko vasco-ren ordai-
na izateko. Izan ere, erdaraz, vasco hit-
zak esangura geographiko, linguistiko
eta kulturazkoa du. Horretara, erdaraz
vasco diogunean, berdin aipatzen dugu
hemen jaiotakoa (euskaraz jakin zein
jakin ez), edo eta kanpotikoa, bertoko
ezaugarrienganako atsekimendurik bal-
din badu, eta zer esanik ez euskaraz
badaki! Sabinok euzkotar hitzaz adiera-
zi nahi zuena, ordea, eta horrelaxerik
azpimarratzen zuen berak bere artiku-
luan!, besterik zen: arrazaduna, euskal
odolekoa, euskaldun zoologikoa. Euska-
raz dakien López bat, kasu, ez zuen
berak euzkotartzat jotzen, erdaraz hari
vasco esan zekiokeen arren. Honetara,
Rubial, Bándrés edo Benegas ez lirateke
euzkotarrak.



euskotasunaz

Sabino hil eta gero, PNVec bere fundatzailearen hitz horik eksklusibaz bultzatzen saiatu zen, eta sektarismo argiaz, karlistek onartzen zituzten Euskal Herria eta euskalduna baztertu eta beren lanetatik GALERAZI ere bai. Gure Herriaren izen nazional jatorren kontrako kanpaina hau, oraintsu arte irauna, bere garaian Arturo Kanpion nafarrak salatu behar izan zuen, baina emandako arrazoi historiko eta zentzuzko guztien gainetik, PNVec beti nahiago ukan ditu bere alderdiko maisuaren asmakeriak, mendeen sakonetik Herriaren ahoz heldu zaizkigunak baino.

Bere euskaltzaletasunagatik baino, bere antiespainoltasunagatik karakterizatu den alderdi horrek, hortaz, ongi kontzienteki erabili du arrazaren promozioa, eta ez dugu uste hain asmo bakezalez izan denik. Ala, ez al dira orain usoekin agertzen zaizkigun berberak, atzo "Suene el irrintzi intrépido / viva la bandera euzkotarra / corra la sangre hispana / mientras dure la invasión... baketsu hura kantatzen zigutenak? Memoria ahula dugu, apika.

EUZKO: IDEOLOGIA IRAGAN BATEN SEINALE

PNVec aupaturik, hortaz, gerra aurretik zenbait izenetan euzko hori erabili zen: Eusko ikaskuntza, euzko gudariak (euskaraz ez zekien batek egindako kanta derragun bidenabar), Euzko Abertzale Ekintza, Euzko Langilleen Alkartasuna, etab. izen fosil gisa, garai hartan (Euskal esnalea eta) gaizki asmaturiko beste izen askoren antzera.

Gerra ondoan, PNV giroan halaber, Euzko Lurra, Euzko Gogoa, Euzko Gaztedi eta Euzko Folklore gisakoak erabili izan dira, baina pixkanaka literatura modernoaren korrontetik kanpoan gelditu.

GAZTEEN EUSKALZALETASUNA

Euskal eta euskaldun hitzetara bihurtzea, ordea, arrazarena ez baizik eta hizkuntzaren bandera jaso duen belaunaldi gazteagoaren meritu handia da. Hor Krutwig, Txillardegia, Aresti eta ezker abertzalearen eragina ezin nabariagoa izan da. Ene ustez, gaur egun euskaldun eta Euskal Herri hitzek eza gutzen duten gorakada berauei zor zaie neurri handiz, PNVren ahalagenez ongi lurperaturik egon baitzitezkeen.

Euskal eta euskaldun berbak, dena den, sasoi batetan hizkuntzarekiko lotu-

ra soila markatzeko erabiliak izan arren, gaur, pixkanaka, arrazismorik gabeko zentzu ethniko eta kulturazko batez darabiltzagu: euskal arazoa, euskal problemak, euskal gizartea, Euskal Iraultzarako Alderdia, Euskal Alderdi Sozialista diogunean, kasu, inork ez du, soilki, euskarari buruz ari garenik, ulertzen euskal nazioaz baizik.

Zergatik ez aipatu, azkenik —eta puntu hau oso zuhurki eduki zuten kontutan Punto y Hora-koek!— Euzkadi eta euzko hitzek Nafarroan eta Araban oraindik duten konnotapen txar eta arrotz itxura, guztiek —eskuindarrenek ere— Euskal Herri eta euskaldun onartzen dituzten artean. PNVren jokabidea,

ko eta hain iturburu arrazistak dituzten euzko eta euzkotar horietara jo gabe. Hitzok, bestalde, jadanik Kanpionek bere garaian zioenez, etengabeki desafio nazional bat mantentzeko balioa dute, hots, izenez euskaldun diren guztiek hizkuntzaz ere izatera heldu behar dutela gogoratzeko.

IRLANDAREN MAMU BELTZA

Sintomatikoa eta erabat susmagarria da, nolana dela, lege zaharrekoek herri jatorriko izen nazional historikoen gainetik, beren alderdiko fundatzailearenak, nola edo hala, bai eta Euskaltzaindiaren gainetik ere, jarri nahi izatea.



"Suene el irrintzi intrépido / viva la sangre euzkotarra / corra la sangre hispana mientras dura la invasión...".

hemen ere, sektari bezain probokatzailezat salatu behar litzateke zalantzarik gabe, eta dena, herriaren batasunaren gainetik bere alderdiko saindu eta sinbolo pribatuak aurrean uzteagatik.

Esandakoagatik, beraz, arrazoizkoa zen, erdarazko vasco behinbehineko hori nolabait itzultzekotan (basko hitza, dirudenez, interesatuentzat iraingarri gerta daitekeelako), herri usuariozko euskal eta euskaldun hitzak, beren hedadura semantikoa desioen arauera zabalduz, erabiltzea, alderdi konkretu baten fruitu ezagunegi, gaur erabilerarik gabe-

Astiro pentsatzeko problema da hau, noski, eta noraezean eta irtenbide bakartzat Euskaldunon nazio ak, Euskal Herria behar duela izan dakigunok, gero eta hurbilago dakuskigu batzuren helburu ordainok, hau da, euzkotar = irlandar, eta Euzkadi = Irlanda-ren iratxo beldurgarriak. Hitz bakoitzaren adierazleen hautapenak, kontziente zein inkontzienteki, atxekimenduz, halako adierazien aukera dakarre aldean, eta orainak derakuskiguna, geroak argiagotuko.

Xabier Kintana
78/XI/29


Mahoma eta Martin Villa

Norbaitek, lan honen titulua irakurri, pentsa dezake izenburu publizitario bat dela, jendea lan hau irakurtzera bultzatzeko, eta egia esateko, ba du horrelako zerbait, baina irakurtzen baduzue ikusiko dizueenez, Madrileko pertsonaia ilustre horrek ba du lan honekin ere zerbait ikustekorik.

Euskaraz sailduen bizitza ugari idatzirik daude, baina ez aldairetaratza iraduratu ez diren biografiarik, eta hutsune hori betetzeko, liburu sail bati eman diot hasiera. Sail honek "Zubi Saila" izango du titulutzat, eta "Biografia eta Historia" gaitzat. Sail honen helburua orainaren eta lehengoaren arteko zubi bat izatea da. Lehen liburua, Napoleon Bonaparte aurkezten, jadanik inprimarian dago, eta pertsonaia honetaz, Napoleonez, hurrengoko ANAITASUNAko ale batean zerbait esango dut, merezi du eta. Eta orain, lot gatazketan saileko bigarren liburuari, hau da, Mahomari.

Napoleonen bizitza idatzi ondoren, bigarren liburua zein izango zen hautatu behar nuen, eta zalentzak surtu zitzaizkidan. Zein aukeratu? Zumalakarregi, Alexandro I Errusiakoa, Madame Curie... Eta horra non, bapatean, Bizkaiko Liburutegi Probintzian aztertzen, Mahonaz jo nuen. Zerbait irakurri eta oso interegarria iruditu zitzaidan hartaz idaztea, alde bateatik pertsonaia oso gutxi edo batere ezaguna delako gure artean, eta bestetik Mahoma bere predikatuak hasi zèn garaia oso interesgarria delako eta gure mementuarekin antzik ba duela.

Mahoma 570 urte inguruan jaio zen, La Meka-n. Garai hartan Zarabur penintzularen inguruan botere internazional handi bi munduaz jabetzeko burrukatzen ziren: Bizantziar Inperioa eta Pertsiar Inperioa. Erdian, Arabia zegoen, lurralde pobrea, ia osorik desertuz bete. Baina arabiarrek, ardurarte fehienak nomadak eta oso pobreak, neutralek beligeranteen kontura aberasten diren eraz, merkataritza ekin zioten, eta la Meka, ezer ez izatetik, boteretsua izatera iragan zen.



Egoeras aldatze hori ez zen bake seinduan egin. Orduarte, La Mekan familia apur batzu bizi ohi ziren, baina merkataritza egiten, desertua karabanekin iragaten, aberastu egin ziren, eta zerbitzariak hartu beharrean aurkitu ziren. Eta zerbitzariok nomaden artean bilatu zituzten. Beraz, hor dugu klase burrukaren hasiera arabiarren artean, nagusiak eta zerbitzariak sortu zirenean. Baina ba dago beste zerbait. Ikus.

Nomaden arteko ohiturak oso bereziak ziren eta desertu gogor hartan bizi ahal izateko oso aproposak: solidaritatea, tribu edo klan barruko pertsonen arteko batasuna, ohorearen zentzu kolektiboa... Indibidualismoak ez zuen balio desertuko bizitze gogorrean eta horregatik solidaritate zentzu gogor bat, oso sendo finkaturik zeukaten. Eta hain gogor, non klaneko norbaiti irain bat egiten vazioten, edo kalteren bat, klaneko guztiek bere kidearen alde burrukatzen ziren eta mendekua hartzea behartuak zeuden. Adibidez, eta kontsultaturiko liburu batean irakurri ahal izan dudanez, klaneko batek

gezur bat esaten bazuen, etsaien aurrean klaneko guztiek gezur hori egia balitz bezala defendatzen zuten. Eta pasarte hau irakurtzean gogorra etorri zaizkit Martin Villa-n Ingaletarran berriki esan dituen hitzak Arrasateko gertaerei buruz. Isuten dugunez, 1.400 urteko tarteren gainetik Martin Villa eta Mahomaren denboretako nomadak solidaritatearen zentzu berdintsu baten zerbitzari dira.

Bueno, eta Mahomaren hostioarekin aurrera jarraituz, nomadak La Mekan hanga merkatarien zerbitzari bezala sartu zirenean, zerbait bitxia ikusi zuten mediarren artean: han solidaritate ez, baina indibidualismoa zela nagusi. Han inor ez zen inortaz arduratzen. Denak zebiltzaten ea nork diru gehiago bereganatu, aberastasun gehiago nork pilatu. Kontraesan bortitza gertatu ziren, tirabira neketsuak, dialektika latz bat, eta hor, giro nahastu horretan, Mahomak bere predikatuak hasiera ematen dio, arabiar umilak inguratzen zieten botere handiak gainditu ahal izan arte.

Xabier Gereño

Etioopia



ETIOPIA
bernardo atxaga

Herodotok lehenbizikoz aipatu zuenetik, Afrikako partetik aurkitzen zen herrialde ezezagun eta misteriotsua izan zen europarrontzat denbora luzez Etioopia, desertuetako hareen ostetik erdi beltz erdi zuri ziren gizakiek populatua. Eta izen hori darama Bernardo Atxagaren, Joseba Irazuren azken obra argitaratuak, inolaz ere "sakrifizio patriotikoz" irakurtzen ez dena, gustura baizik, haina ahaleginez, eskuartean erabiltzen den liburua baita. Poemez eta prosalan laburrez osatua dago, eta egilearen bigarren liburuan legez, lehenengoa antzerki bat izan zen, bi mailen artean tankerak diferentzia ikaragarria soma daiteke, eta honako honetan "Ziutateaz" delakoan baino askosaz gehiago, hura ez bezala, kopuruz eta nahikundez poemaliburu bat izatea delako, antza, liburu honen helburua.

Sei dira prosalanak, Bernardok duen herrikondalari trebearen tankeraz idatzia, xume eta laino, hizkuntza zuzen eta adierazkorraz, ezelako nahasmendu eta korapilorik gabeak, baina hala ere ironia ikaragarriaz hornituak, askotan gure gorputzean zirar bat eragiten duen indarrak, dela Kainen aldeko beraren manifestuan:

"Kainen jatorrikoa izan zen Jubal: hau izan zen arrabita eta maniura jotzen dutenen aita. Gu ere bere hegalean babesten gara letra hau izkribatzerakoan. Eta hau da, hain zuzen ere, gure fede artikulu bakarra udaberri berankor honetan."

edo eta Caryl Chesman-en biografian:

"Bera baino zaharragoa nintzen arren, hitz hau esan zizkidan antiajuak (sic) tximeletak bailiren begietatik kenduz, emaro, neurritz gain emaro esan nahi

du: a, ene biografo ttikia, oraindik gazteegia haiz zenbait gauza konprentzearren, Begiratu nion peto, aurpegi hura harri hutsa zen."


Eta ez du horregatio sendikortasuna galtzen:

"Atsedendiko argiak biztu egin ziren. Ene alboko amonaren begiak malkotan zeuden."

Egileak daukan irudimen ikaragarriaren ekoizpen politikak, alegia.

Arras bestela dira olerkiak lehenago esan dugunez, prosan zuzentasun, argi eta xalotasuna dena, ilun eta beltz bihurtzen baita poesian, lan askoren produktua baitira poemok, eta horregatik maiz, irakurtzean horrenbeste ahaiegintza eskatzen dutenak. Labur esanda, prosa guztiz da herritarra, poesia, berriz, oso intelektuala. Hor dago hain

gaiak KULTURA gaiak KULTURA



Ixiltasunaren palazioari hautsi zaio


Beiradura: girnaldak adjetibo kalifikatiboentzat

Basamortua leihotatik sartzen

Gau erailea

Urtxoriak ihi artera ihes

A l f e r r i k



zuzen idazkera diferentzia, on ala txar den, egoki ala desegoki, esan gabe, bertan dagoena.

Marcel Schwob-i jarraituz nonbait, bederatzi zirkulutan antolatu ditu Bernardok olerkiak; halako aipamen literari ederrez, batzu egileak berak asma tuak, hasiera duten zirkuluak:

“Lehen zirkulua: Nigar egin nahi nuke itsutu arte jaiki deneko hondoratzen den bizitza honegatik. (Kabila poema).”

Amaigabeko dira erabilitako baliabi deak, dela hots berbera egiten duten hützen asmatzea (Amaren bularrak..., ere, dere, begere olerki politean), dela izen eta izenlagunen konbinapen arraroak (Larunbat honetan ekia ez da 220 - 60W gorbatadun tigre funtzionala poema atseginean), edo irudi exotikoak (Ez naun emaro amarguraren..., baina orain Arreba sugearen zuhurtziaz..., taxi anonimoan, erne deuseztatu diren poema ulergaitzean). Lantzean behin surrealis moaren garai berri batetan ote gaudekeen, euskaraz behintzat, otutzen zaio irakurleari, eta hau bezalako lerroak igarotzean:

*“Eta trenek arrain biguinak ekarri zituzten abenidak
Zilarreztatzeo arratsaldean pozoina eman zieten
Kalatxoriei dantzaldia amaitzerakoan leihotan
Emakume jelatuak esnea zeriela eta gizon
B akartiak beirazko betsein horiekin
B urua botatzen natazko
P astelak janez.”*

ezin burutik ken daiteke García Lorca ren harako “Poeta en Nueva York” en agertzen ziren haik:

*“Debajo de las multiplicaciones
hay una gota de sangre de pato;
debajo de las divisiones
hay una gota de sangre de marinerio;
debajo de las sumas, un río de sangre tierna.
Un río que viene cantando
por los dormitorios de los arrabales,
y es plata, cemento o brisa
en el alba mentida de New York.
.....”*

Pozik egon daitezke literaturzaleok, euskaraz zerbaiten esperoan “patriotikoki” itxaroten duten literaturaren maitaleok, liburu hau, gustuak gustu eta merezimendu eta akatsak akats eta merezimendu, horixe baita, literatura, hots, sorkuntza, beste edozein helburu eta karia alhora uzten duen idazlan interesgarri eta atsegina.

Andolin Eguzkitza

gaiak KULTURA gaiak KULTURA



UEUaren Euskal Herriko itzulingurua

U.E.U.ren berriak

Udako Euskal Unibertsitateak sei ekitaldi burutu ditu jadanik. Iparraldean egin zituen lehenengo laurak eta Nafarroan azkenengo biak.

Ezinezbestean, beraren oihartzunak itzaliz joaten dira urtean zehar. Hala ere, azken urteotako berezitasunen bat azpimarratzekotan, urtean zehar egindako lana aipatu beharko litzateke, nahiz eta, paradoxaz, komunikabideetan oihartzun eskasagoa izan.

Hutsune hau nolabait betetzeko ustez, udako saioen prestakuntza eta eraketari buruz ematen diren urratsen berri, erregularki, eman nahi genuke aurten.

Datorren urtean Gasteizera

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azoka egunetan egindako bileran hasi zen bideratzen Udako VII. Euskal Unibertsitatea.

Joan den udan Iruinean proposatutakoa kontutan harturik, datorren udako Euskal Unibertsitatea Gasteizen egitea erabat onhartu zen.

Zenbait Ikastarotako plangintza eta lanak er martxan daude dagoeneko, hala nola, FISIKA, KIMIKA, ARTEA (Plastikagintza eta Artearen Historia), NATUR ZIENTZIAK, MEDIKUNTZA, KIROLAK, ETNOLOGIA.

Idea berriren bat edo beste ere proposatu zen Durangoko bileran. Aipagarrienak hauek lirateke:

— Urtean zehar euskaraz egindako Tesi eta Tesinak U.E.U.ren barnean aurkeztea.

— Tesi eta Tesinetarako gaiak egokiro aukeratzeko, Zerbitzu Batzordea osatzea U.E.U.ren Zuzendaritzaren barnean.

— Euskal Sukaldaritza Saila muntatzea.

— U.E.U. herriratzeko asmoz, ospatzen den egunetan, kultur ekintza paraleloak bultzatzea, tokiko berezitasunen arauera.

Hutsuneak

Ba dira zenbait Sail, nahiz eta aho batez garrantzizkotzat jo, bideratu eta gotortu ezinean ari direnak.

Eskabideetatik nabaritakoa akarrrik aipatzearen, PEDAGOGIA, DIDAKTIKA, DERETXOA eta KOMUNIKABIDEAK aipatu beharko genituzke.

Esandakoez nahiz beste zenbait Sailez U.E.U. aberasteko, Irakasle, Ikasle

eta Kultur Erakundeei deia egiten diegu berriz ere, beraien ideia eta posibilitateen berri Idazkaritzari eman diezaioten. Zinez, jasotako ideia, inizatiba eta proposamenak oro, arretaz estudiatuko genituzke eta, gure ahalkizunen arauerara, burutzen saiatuko gineteke.

Beraz, zain gelditzen gatzazkizue.

Gabonetan Donostian

Azken bi urteotan egin dugun bezalatsu, aurten ere, Gabonetako oporretan, bilera irekia egingo dugu Donostian, abenduaren 29an, Sto. Tomas Lizeoan, goizeko hamaiketan hasita.

Bilera honen helburua, datorren udako Euskal Unibertsitatearen linea nagusiak mugatzea izanen da, bai Ikastaroei dagokienez, eta bai antolaketa eta ekitaldi osagarriei dagokienez.

U.E.U. indartzeko prest dagoen edonor gonbidatzen dugu bilera honetara, eta bereziki Irakasle, Ikasle eta euskal kulturaren lanean ari zareten guztiok.

Martin Orbe
29. hor.

Pretty baby

Beste egun batzutan hasitako istorio bat da, udan eguzkia erretzen zenean... arraunak higierazteko kanta sinple bat... eta bere oihartzuna oraindik ere oroimenean ikaratzten da orain urteak ahantziz doazenean.

(Lewis Carroll)

Louis Malle frantziar zuzendariak USAn eta kapital amerikanoz egin izan du bere azken pelikula hau. 1917ko New Orleansen bilakatzen da, putaetxe batetan. Violet, putetarik baten alaba, giro hontan hazten dan hamar urteko neskatu bat da. Lolita berri bat aurkezten zigu, filme narratibo, dekoratibo eta atsegin honetan.

NEW ORLEANS 1917

Hiru arrazoik bultzatu dute zuzendaria istorioa 1917ko New Orleansen ambientatzera. (1) Al Rose delakoaren liburu bat Stury villeko putaetxei buruz irakurri izanak. (2) 1912 inguruan E.J.-Bellocq gazteak New Orleanseko putei egindako fotografiak ikusi izanak. (3) Storyville jazzaren sorterrria izateak eta Jelly Roll Morton pianista bertoko putetxetan bizi izanak.

Berreraikidura historikoa egokia da eta ambientazioa liluragarria. Ene ustez, filmaren baliorik inportanteenak, hain zuzen, narrazioaren xarma eta ambientazioaren eta edertasuna dira, musika eta fotografia (Sven Nykvist) batez ere. Baina, azerturik handiena, dudarik gabe, New Orleans bera aukeratzea izan da.

New Orleans, orduan, USAko fantasiaren hiriburua zen. New Orleans, Amerika ez ezik, Afrika ere bazen. Missisipiaren erriberan hazten zen marihuana (urrezko horria) eta grifa ere, eta hibai bazterrean eseritzen ziren aspaldian zaharrak fumatzeko. Geroago, jazzaren doinu martxosoaren erritmoan fumatuko zuten belaunaldi berriek edozein lokal hertsitan. Agian, belarrak sortu zuen jazz. Edozelan ere, amerikanoak eta afrikanoak elkaturik, larra lokatu eta beltz haik, landa, kalearte eta lokal exotiko bihurtu ziren, marihuana usaina eta jazzaren erritmoan. Benetako jazz, benetako marihuana bezala, New Orleansen sortu ziren.

Kontrakoen erreakzioa, ziudadano errespetagarriena alegia, ere izan zen eta debekatzera heldu ziren (gauza bat de legea eta bestea bizitza) droga eta jazz ere. Honela zioen egunkari batek



(Daily Picayune) 1918an: "Jazzari gagokionez, New Orleans bereziki interesgarria da. Bizio musikal moeta hau sortu zenez geroztik gure honra eta gure ohorea mantxatzen duten deprabazio klase guztiak ugaltu dira. Kate pekaminoso hau gelditzen ez badugu lokatzean hondatuko gara erabat eta ez dugu egundo irten ahal izango".

Mende hasieretako New Orleans, beraz, fantasiaren hiriburua zen. Eta fantasiaren herrialdeak paradisua eta

gaiak ZINEMA gaiak ZINEMA gaiak neskato polita



infernua batzen dituztenekoak dira, alegia. Eta burdeletan zen, hain zuzen, jazzaren erritmoaz, belarraren usainaz eta gorputzaren trafikoaz, arnasa hartzerakoan magiarik (berdin perbertsiorik) gardenena.

Hemendik sortzen dira filmaren abantailik interesgarrienak.

LOLITA, THERESA ETA VIOLET

Stanley Kubrick-ek eraman izan zuen aspaldian Vladimir Nabokov errusoa-merikanoaren Lolita nobela pantailara. Harez gero neskutsaren eta gizonaren arteko harremani buruzko obrak ugaldugain izan dira. Euskaraz ba da nobela bat (euskaraz direnetakoak interesgarrietariko bat) arazo honi buruz, Haur Besoetako deritzona (Lur edit, 1970). Ez da hau arazo honetaz aritzeko abagadunea, hiruren desesperantza eta etsipen berbera seinalatzea nahi nuke bakaeik. Honela idazten du Vladimir Nabokov-ek: "Ba nekien Lolitaz maitemindurik nintzela; baina ba nekien halaber bera ez zela beti Lolita izanen". Jon Miranderen ipuin berrian ere heriotzak bakarrik soluziona dezake zorion inposible, zeren eta erreguek ez baitute etorkizunik: Ez, Theresa, ez gaitezen horrela hil gizatzen gatik! Ez dinat nahi hil hadin, neurekin gorde nahi haut jende guztiengatik ere... Ihes eginen zienagu, gaur bertan ihes eginen dinagu norabait hala non herri honetatik inork ez baitu jakinen non izanen garen, Inor ez baita etorri ahal izanen elkarrengandik gure bereztera..." (Baina bereztea (edo hiltzea) ezinbestekoa da, Alizia bere Herrialde Miresgarritik irtetzea ere ezinbesteko zen bezala. Izan ere, funtsean, amets bat baitzen.

Louis Mallek aukeratu duen bukaera ere oso irteera normalizantea da, horra eta normalitatearen gizartea integratzea alegia. Violet, alde honetatik, Alizia perfektu bat da, eta bere haurtzaroa (berdin perbertsio haroa) enkantoen herria. Bukaeran, beraz, galdu egiten da xarma, galdu egiten da fantasia, kotidionotasunera itzultzeko.

Bestalde, filmean zehar, Lolita (edo Theresa) berri honen figura ez da egoki azaldua (interpretazioa ona den arren). Pelikulan Violet aztertzerakoan hainbat huts nabaritzen dira, sakontasun eta ikerketa psikologiko falta batipat.

Orohar, filmean ardatza flakoa den arren, ambientazioa, fotografia eta musika arras interesgarriak dira eta pelikula dekoratibo eta atsegintzat balora daiteke.

Joseba Sarrionandia



Fisikari euskaltz

Orain dela zenbait aste, ANAITASUNA batetan euskaraz eginiko tesina batzuren aipamena agertu zen. Gure hizkuntzaren eguneratzerako hain garrantzizkoa den lan-modu honetaz informazio gehiago lortzeko, tesina-egile batengana zuzendu gara.

Begoña Zurimendi Abralde, hogeita hiru urte, bilbotarra. Duela lau zapabost urte hasi zen euskara ikasten eta, zinez, denborarik ez duela galdu esan daiteke. Azken urteotan behin baino gehiagotan gertatzen ari den bezala, zerikasi bikaina eman digu orain ere euskaldun ikasiberri batek, maiz alferkeriatan gabiltzan euskaldunoi. Hainbeste euskaldun analfabetok bere hizkuntza lantzeko ahaleginik egiten ez duen bitartean, beste batzu esfortzu neketsutan daudela ikustean, poztu egiten gara, etorkizunari begira dagoen leiho argitsua baitira.

—Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

—Ikasi nahi nuelako. Euskal Herriaren ezaugarri nagusitzat kontsideratu nuen, eta beharrezkotzat jo nuen Herri honekin integraturik egoteko.

—Bilbotarra izanik, zer-nolako etorkizuna ikusten diozu euskarari Bilbon?

—Guztiok dakigunez, Bilboko tradizioa ez da euskalduna. Bestalde, hiri handi gehienetan bezala, Bilboko giroa nahiko apertsonala da. Dena den, azken bolada honetan argi ikusten denez, haurzategiak ari dira gure hiriko giroa ustintzen eta haurzategietan benetako bizigiroa dagoela esan daiteke. Horregatik, euskarak duen problematika orokorra ahanzi gabe, euskararen bizitza eta haurzategien bizitza loturik daudela esango nuke. Bilboko euskarak duen etorkizuna, Bilboko haurzategi bakoitzeko burrukan dago. Eta haurzategi batzutan hainbat lan egiten da.

—Nola ikusten duzu Bilboko Unibertsitatea?

—Bilboko Unibertsitateak problema handiak dauzka, bai irakaskuntzaren aldetik eta bai ikerkuntzaren aldetik ere. Gainera, nire ustez behintzat, problema nagusia Unibertsitatea eta bere inguruko gizartea guztiz banandurik daudela da. Edozein modutan, probetxatu egin behar dugu Unibertsitate honen oinarritzko egitura, Euskal Unibertsitateara heltzeko bidean pauso positiboak emateko. Honelako pauso batzu, hauk dira: Lehen ikasmailan ikastaldiak euskaraz ematea, euskarazko lanak egitea (tesinak eta beste), euskarazko mintegiak antolatzea eta abar.

—Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu al duzu inoiz?

—Bai. Lehen aldiz 1977.eko udan joan nintzen, hango giroa ezagutzeko eta euskaraz seriozki lan egiten hasteko. Aurtengo UEUn, 1978. urtean, erlatibitatearen teoriari buruzko lan bat aurkeztu genuen. Lan hori UEUko liburuen artean argitaratu da.

—Non eta zertan lan egiten duzu orain?



le batekin hizketan

—Bilbon bertan, Txurdinagako Institutuan egiten dut lan. Aurtengo ikasturtean, BUPeko lehen mailako ikastaldiak euskaraz ematen hasi gara, inguruko ikastoletatik etorri diren gazteekin eginko talde batetan. Nik neuk Natur Zientzien ardura dut talde horretan.

—Zertarako egin zenuen euskaraz zeure tesina?

—Eta nire galdera hauxe da: Zertarako egiten dira tesinak erdaraz? Nire ustez ez dago desberdintasunik hizkuntzen ahalmenari dagokionez. Tesinak, zein beste edozein lan ere, euskaraz presta eta adieraz daitezke.

—Zein da tesinan egin duzun lana?

—Nire tesina hori Fisika Teorikoaren barnean kontsidera daiteke. Gaia, errotatze-higiduran dagoen sistema baten ikerketa erlatibistikoan datza.

—Zailtasunik aurkitu al duzu horrelako gai bat euskaraz lantzeko?


—Egia esan behar bada, euskaraz egi-teagatik ez nuen oztoporik aurkitu Unibertsitatean, euskarazko tesinarekin batera erdal itzulpena ere aurkeztu behar nuela izan ezik. Beste alde batek, euskara aldetik hitz teknikoak egokitzea eta aurkitzea ere erraza izan da, horietariko asko eta asko lehendik ere erabiliak baitziren; eta, bestalde, J.R. Etxebarriaren laguntza ere izan bainuen.

—Zer esango zenioke Suarez jaunari, euskararen gaitasunaz agertu zuen eritziagatik?

—Ez nioke ezer esango, horretarako denbora galtzeko astirik ez baitut. Haren esaera ospetsuak zera esan nahi du, halegia, edo ez dakiela euskara eta Fisika zer diren, edo eta itsua eta entzungorra izan nahi duela. Zertarako balio du, ba, Suarez jaunari ezer esateak?

—Zertu pauso emango zenituzke Euskal Unibertsitatea lortzeko?

—Pauso nagusia gizartearen euskalduntzea da. Helburu hau lortzeko pauso asko eman ditzakegu irakasteko klaseak eta euskaraz emaniko ikastaldiak, nahiz



eta oraingoz Erdal Unibertsitatean egon. Dena den, ez da soilik Unibertsitatean lan egin behar. Orain Institutu batetan nagoelarik, BUPeko liburu euskaldunak ez dagoela konturatzen naiz. Unibertsitate mailako liburuak, apunteak, tesinak, e. a. egiten dira, eta ongi dago; baina ezin dezakegu ahanztz, BUP eta FP arloetan hutsune izugarriak daukela. Eta tarteko maila hauk eta EGB delakoa ongi landu gabe, nekez lortuko dugu benetako Euskal Unibertsitaterik.

Baina ez da nahikoa irakaskuntzaren euskalduntzearekin. Gizarte osoa euskaldundu behar da, beste itxura euskaldunagoa eman behar zaio gizarteari. Euskal Unibertsitateak euskal gizartearen barnean egon behar du; bestela, erakunde fantasma bat izanen litzateke.

Gainera, ezingo ditugu ahanztz oraingo unibertsitateak dituen trabak, adibidez irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arteko lotura faltagatik sortzen direnak. Eta, bereziki, Euskal Unibertsitateak

erantzun egin beharko die gure gizartearen premiei. Honek zera esan nahi du, unibertsitateak eta inguruko gizarateak elkarrekin lotuta egon behar dutela.

Elkar hizketa luze samarra izan bada ere, erraz luza zitekeen, gaiak berak ematen baitu horretarako bidea. Dena den, hainbat ideia plazaratu dira, gaur eguneko zientzilari euskaldun gazteen ikuspuntuez jabetzeko. Eta hau garrantzizkoa da, zeren eta jadanik horrelakoak sortzen ari baitira Fakultateetatik. Eta agian —hori nahi genuke behintzat, eta horren esperantza dugu—, laster batean horrelako euskaldunen kopurua handituz joanen da, eta euskararen azpiegitura sendoagotuz joanen da. Orduan hasiko da egunsentia, gau ilun eta luze hau argitzen.

Eskerrak, ba, Bego, eta segi gogor lanean!

Ramon Garai

E.I.L.A.S

Euskadiko irakaskuntzako langileen sindikatua



Jende askorentzat STE-EILAS izen hori ez da berririk izango. Gainetik begiratzeko eta sekulan zehatz mehatz letreiatzeko sigla batzu dira. Irakaskuntzako sindikatu bat dela. Horretaz aparte, zer dakite gehienek STE-EILARI buruz...?

Oraindik sindikato hau, gainetik soilik ezagutzen dutenentzat, Jose Manuel Ruiz-ekin —STE-EILASEko arduradunarekin— elkarrikuste bat prestatu dugu.

Arineketan dator, beti bezala, bilera batetik Bilboko taberna batetara. Karpeta besapean, hizkera sendo eta bere betiko oldarra dakar. Presa du.

Besterik gabe hasten gara.

Nik: Jose Manuel, hitz egidazu lan egiten duzun sindikatuaz. Nondik eta zergatik jaio zen STE-EILAS?

J.M.-k: Nondik...? Ba, irakaskuntzaren sektoretan zeuden mugimendu unitarietatik jaio zen. Mugimendu hauek, mementu konkretu batetan, sindikatuaren transformatzea planteiatu behar zuten; langileek, haien interesak defendatzeko, antolaketa hobe bat behar zutelako. Eta ordu hori arte, langileen burruka gidatu zuen oinarrizko ideia hartuz —hau da batasunaren ideia— STE-EILAS sortu zen.

Geldiune bat egiten du. Ardoari dzangada bat ematen dio.

Jendaurreko elkar hizketan hitz egitera ohituta dagoela bistan dago.

J.M.-k: ...noiz jaio zen? Orain egingo du bi urte; baina eraikitze prozesua askoz ere lehenago hasi zen.

Nik: Nola azalduko zenidake sindikatu honen karakteristikak zeintzu diren?

J.M.-k: STE-EILAS asanbladakoa da. Langileriaren tradizioa biltzen du; halaber, kontzientziatzeko eta langileen batasuna lortzeko era hobe dela, sindikatuaren eritzia da.

Sindikatu demokratikoa, klasekoa, unitaria baita irakaskuntzaren oraingo eredia gainditzea lortzeko, herriaren

zerbitzuko projektu batetara heldu arte.

Nik: Eta nolako kidezta duzue Euskal Herrian?

J.M.-k: Gure kidezta irakaskuntzaren sektore guztietara zabaltzen da: unibertsitatea, profesional eskoletara, Erdi Irakaskuntza, E.G.B.-ko estatala eta pribatua, irakaskuntza "no reglada", auto-eskola... irakasleentzat, nahiz ez direnentzat.

Kidezta zifragatik eta eleazio sindikaleen ondorioz, inplantazio handiena dugu Euskal Herriko sindikatu garela esan dezakegu.

Nik: Hau bakarrik Euskal Herriko sindikatu bat da ala, beste edozein sindikatu estatalekin harremanak ditu?

J.M.-k: STE-EILASEk Euskadiko inguru autonomo eta subiranoa ezagutzen du. Honen ondorioz, Euskadiko sindikatu nazional bat gara. Hala ere, irakaskuntzaren langileen burruka bereziki, askotan, estatuko irakaskuntzaren langileen burruka da eta Madrileran abiatzen da. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, UCSTE-ren barruan gaude (Unión Confederal de Sindicatos de Trabajadores de la Enseñanza). Bide batez, hurrengo urtarrean bere lehenengo kongresua ospatuko duela esan nahi dut.

Dena dela, UCSTE-k bere estatu-tuetan, sindikatu konfederatuaren izakera subiranoa, bere akordioak onartzeko ala ez, ezagutzen du.

Nik: Zer pentsatzen duzue ikastole-tako konbenioaz?

J.M.-k: Oraingo gai hau debatitzen ari gara, arineketan jarrera ofizial bat hartzeko. Pertsonalki ahalegin hori positiboki baloratzen dugula aurreratzeko. Konbenioaren berridazlea, "getto" pribatua ikastola izan behar dela pentsatzen duten aurka, onartu egingo dugu, Euskadiko eskola herrikoien alde gaude eta. Puntu konkretu batzu, zera: langileen lan postuei buruzko garantiak, parte hartzaileak izatea, eta abar, eztabaidatu eta hobetu egin behar ditugu. Aspektu hauetaz aparte, geure laguntza emango diegu.

Nik: Eta konbenioaz hitz egiten ari garenez, zer pentsatzen duzue eskola pribatuen konbenioaz?

J.M.-k: Honetaz gure jarrera argi dago. Negoziaketa Euskadi mailan egitearen alde gaude. Alde batetik, negoziaketaren inguru bat instituzionalizatzen ari garela, eta bestetik, hau, langileen multzoari gehiago hurbiltzen zaiolako.

Linea horretan, patronalarekin negoziaketa aurreratzeko, beste sindikatuekiko harremanak gogortzen ari gara.

Iluntzen ari da. Gure ardo aspalditik amaitu egin da. "Gonbidatzen zaitut" esan dit.

Bere karpetak eta presa berriz hartu ditu.

Ikusi arte.

Eukene

Gizaki





Moda osasuntsu bat

—Txo, apuntatu zara datorren larunbaterako?

—Zer, ba?, zer dago ba?

—Ez zara enteratu ala? Klaro, beti Bilbon ez ez dakizu inoiz Bermioko berririk. Ba, datorren larunbaterako, San Martin egunerako, maratoni txiki bat antolatu da, Sanmarthon, 15 kilometrotakoa; baina mundu guztiarentzat, ez betiko hiru azkarrentzat. Benga, atera bost hogerloko eta eman zure izena.

—Txo, baina ni ez nago preparatuta, erridikulua baino ez dut egingo.

—Zer erridikulu eta zer letxe! Begira, daborduko 400 pertsonaren bat apuntatu dira, eta ia denak bermiotarrak. Ez didazu esango azkenen helduko zarenik, ez da? Utz itzazu koplak eta berriketak eta atera bost hogelook.

Ba, honela engainatu ninduten koardrilakoek, eta honela egin nintzen 406. dorsalarren jabe. Egia esan, lagun "turrada" soinetik kentzearren egin nuen gehien bat, baina biharamun goizean, igandean, herrian zehar galtzamotoz eta txandalez jantzitako hain jende asko ikusiz, animatzen hasi nintzen, eta oraindik astebeite nuela pentsatuz, neure planak egiten hasi nintzen. Eta astelehenean han nengoan, Bilboko SanInazioko pistan, neure saiotxoak egiten; eta berdin hurrengo egun bietan ere.

Eta San Martin egunean, goizeko hamaiketean, Bermion aurkitzen nintzen beste 800 pertsonarekin batera, 15 kilometroak egiteko prest. Hura zen giroa!! Denetariokoak zeuden: lodiak eta argalak, gazteak, umeak eta ez hain gazteak, gorputz landuko deportista itxurazkoak (gutxienak) eta sekula karrera batetan parte hartu ez dugunok (gehienak). Andrazkoak ere ez ziren gutxi, batez ere gaztetxoak, hamarretik hamalau urterartekoak.

Heldu zen irteteko ordua, eta han abiatu ginen, aurretik hirulau jo ta ke, eta gehienok atzetik, taldean, txantxetan eta elkarradarra jotzen; barre ere egi-36. hor



ten genuen, ikusleen komentarioak eta piropoak entzunez. Bost bat kilometro eta gero, gauzak ez ziren hain alaiak: batzu oinez ikusten ziren, guztiz nekaturta, beste batzu puzka, eta inork ez zuen txantxetarako gogorik, oraindik kilometro asko faltatzen baitziren, eta, birikiak eta hankak ez baitzeuden hain harro. Orduan, neure gogoetak egiten hasi nintzen. Lehenik pentsatu nuen gauza zera izan zen: hemen gauden asko, karrera honetan egongo ez bagina, beharbada, txikitoak hartzen egongo ginatke, eta karrera honegatik izango ez bazen, astean zehar hainbat txikito eta kopa gehiago edango genukeen; beraz, honelako gauzak alternatiba balidoak izan daitezke, ene ustean, gure gaixo nazionala den alkoholkeria edo alkoholismoa konbatitzeko. Pentsatu nuen, baita ere, karrera hau Euskal Herrian zehar ugalduko balira, gorputza forman mantentzeko eta noizik behin, apur bat entrenatzeko alizientea izango liratekeela. Honela, igande goizetan, ohean gera-

tu edo nora ezean ibili ordez, ba, goiza pasatzera honelako karrera batetara joan gintezke; eta gainera, pentsa dezagun grekoek ere ba zekitela, buru sanoa gorputz sanoan dagoela.

Esan behar dut, bide osoa egitea lortu nuela, ez lehengoan artean, baina amaitu. Helburua bete nuen behintzat.

Orain enteratu naiz, abenduaren 8an, Mungian, beste honelako karrera bat izango dela; eta 24ean Gasteizen. Beraz, Bermion bildu ginen 800ok (zortziehunok) eta animatzen beste askok, ba dugu berriz biltzeko beste aukera bi, eta ez dut uste bakarrak izango direnik. Asuntu honek honela segitzen badu, Donostiako Marathoia aurten 1.518k amaitu badute, datorrenean 15.000k.

Ea kalera galtzamotoz edo txandalez irteteko lotsa kentzen zaigun, eta moda osasuntsu honetara guztiok apuntatzen garen. Sasoa zen ifarrameriketarrengandik gauza on bat etortzeko.

Jose Ramon Bilbao Otaola

Azken urteotan, kirolaren praktikak izugarritzko gorakada izan du Euskal Herrian, gazteen artean batez ere. Due-la urte batzu, herriko futbol-taldea, mendizale-elkartea eta pelotari batzu izan ezik, bestelako kirolen praktikatzailerik ez zegoen; eta aipaturikoenak ere, ez herri guztietan. Gaur egunean, ordea, errugbia, saskibaloia, eskubalóia, arraunketa, atletismoa, igeriketa, eta abar leku askotan aurki daitezke.

Eta zabalkundearekin, medikuntza esportiboaren premia ikusten ari da. Izatez, lege aldetik, beti egon da medikuaren baimena lortu beharra, federazioko fitxak eskuratzeko baino izan ez bada ere. Hala ere, horretarako egiten izan diren azterketa klinikoak, edozein eratakoak eta seriotasun eskasekoak izan dira gehienetan. Egoera horren kausa batzu, hauxek izan dira: Elkarte profesionalen falta; askotan, klubek beren mediku partikularrak edukitzean, bestelako interes batzu egotea; beste zenbait kasutan, medikuaren sinaduraz nahikoa zen; eta abar.

Era honetan hezi eta bizi izan direnez, askotan kirolariek berek ere ez dute ikusten azterketa klinikoaren garrantzia eta premia. Eta zenbait kasutan, kirolari batzuren eritziz, medikuaren baimena lortu beharra, kirola egiteko oztopo bat baino ez da.


Bai medikuntzak eta bai kirolak —zeinek bere aldetik— hartu duten garrantzia eta bilakaera ikusiz, kirol medikuntzari, hau da, medikuntza esportiboari ematen zaion balore eskasean, izugarritzko kontraesana agertzen da gure ustetan. Bestela esanik, kirolarien artean medikuntza esportiboaren garrantzia behar den neurrian ez dela baloratzen uste dugu.

Zenbait ideia oker ere ba dago kirol medikuntzari buruz. Medikuntza esportiboaren zeregina ez da bukatzen, kirola baterako gaitasuna duela esanik edo kirolari horrek oztopo fisikorik ez duela esanik. Nazio aurreratuetan, kirola praktikatzeko baimena eman ondoren, medikuak, gertalariekin koordinatuz, elikatzerako eta prestakuntza fisikorako plangintzak prestatzen ditu. Eta zer esanik ez, zaurituen zainketa eta errehabilitazioa ere mediku esportiboaren kontrolpean dago.

Arrakastarako bestelako arrazoi batzu badaude ere, honelako plangintza segitu duten herrietan, izugarritzko ondorio bikainak lortu dituzte kirolarloan. Aipa ditzagun, adibidez, Kuba, R.D.A., Polonia, eta abar. Gainera, eta ikusten ez bada ere garrantzi handiagoa duena, hainbat ezbehar eta heriotze ekin dira modu honetan.

J. M. Arzubiaga

(I) Medikuntza eta kirola



Medikuntza integralaren premia

Gaiaren gaurkotasunak alde batetik eta kalean dagoen eztabaida bat izateak bestetik, arazoa, honaxe ekartzera bultzatu gaitu.

Ditugun beste hainbat arazotan gertatzen den bezala, hauzo elkarteak arduratu dira sanitarearen problematika kalera ateratzeko eta dagoen egoera larriaz, herria informatzeko. Hauzo-elkarteetako sanitate-komisiokoak bildu egiten dira eta kanpaina bat ateratzea erabakitzen da, hitzaldi, manifestazio eta antzerako ekintzen bidez (eramango dena).

Dakizuenetz, hazilaren 8an manifestazio bat egin zen Bilbon eta 5.000 bat pertsona izan ziren bertan. Kontsignak eta pankartak, Bizkaian, jasan behar den egoera asistentzialaren aurka jo zuten; egoera hau, jakina da: Basurtuko hospitalia; Asegurantzaren sozialeko gaixo-

koa den —egokia ala eskasa—, hartuko du kontutan.

Osasuna, ontasun fisiko, mental eta sozial oso bat bezala kontsideratzen da, ez bakarrik gaixotasun edo baliogabetasun eza. Medikuntza prebentiboak beraz, gaixotasuna eta bere ondorioak gerta ez daitezen ekingo du, eta gaixotasuna osatuzinezkoa denean, efektuak atzera daitezen.

Gaixoen ohizko tratamendua, hau da, orain arte erakutsi dena, medikuntzaren kontzepzio hitxi bat baizik ez da.

Ingurunea orohar, determinante bilakatzen da. Esate baterako: zer atera dezakegu Basauri baten azpiegitura urbanoa aztertzen badugu? Begirada bat bota eta ikus daitekeena jarriko dugu: hainbat industria kutsagarri,... Mercabilbao... Autopista... Gartzela... Lantegiak eta etxeak batera... Laster

Bizkaiko egoera hospitalario eskasa, ezagutzen dela uste dugularik ez dugu daturik emango. Dena dela, argi dago kalitate gabeko medikuntza baten aurrean gaudela; sanitarearen organizazio eta politika on bat egiten denean, osasun maila jaso egiten dela, egia bada, ez da hau Bizkaian eta estatuan gertatzen den zerbait.

Bizkaian egiten diren kontsulta guttien % 40 botikak errezetatuz, soluzionatzen dira. Gaurreguneko medikuntza botiken kontsumismoan oinarrituta dago.

Kruzesen eta anbulatorioetan diru kopuru garrantzitsu bat, alferrik galdu egiten da, gauzak hobetzen direnik ez baita ikusten.

Sanitate-politika, hospitale handiak eraikitzean finkatu da eta ez da herriaren osasun kalitatea goratu.

“Ley de Reforma sanitaria” konstituzioa onartua izan ondoren aterako da. Zati batzu, jadanik eginak dira eta dekretu bidez atera dira.

Lege hauk egiteko, ez profesionalik, ez alderdi politikorik, ez herriaren erakunderik ez beste inork —gobernutik at— ez du parterik hartu. Desinformazioan oinarritu dira honela jokatzeko.

Esan beharrik ez dago, dekretu hauk demagogia hutsa beste ezer ez direla, egunetik egunerako praktika sanitarioak erakusten baitu efikazia. Superhospitaleak egitearen politika berdinarekin eta medikuntza prebentiboari uko egiten zaion artean ez goaz inora.

Zenbaitzuen ustez, medikuntzaren pribatizazioerantz abiatzen gara pribatizazioa dekretu batzuen bidez eta komunikabideen laguntzaz denbora guttitan ezar daiteke, eta orduan osasuna, estatuak dohainik eskaini beharko lukeen eskubide kolektibo bat, gure herritxoan diotenez “al garete” geldituko litzateke.

Beno, gainerik ez bada ere, sanital egoeran dauden hutsune eta gorabehera batzu aztertu ditugu. Hauzo elkarteetako sanitateko-komisioko ikastaro laburrrak antolatzeko asmoz dira, jendea, arlo honetaz hez dadin eta ba dirudi Bizkaiko “plan de salud” taldekoak laguntzeko prest daudela.

Kontsumozko gizarte honen krisis orokorretik, ez da sanitatea salbatzen. Aurrerabide moeta honek ekarri digun ingurugiro kutsagarri, eta erasotzaile honetan gizona ia ez da gizon sentitzen; eta honetxek adierazten du hain zuzen medikuntza honen aldaketa eta kontzepzio berria, gizarte ereduaren aldaketarekin batera lortuko dugula.

M. e. E.



rik ez duela hartzen; Lejoakoak geldirik dirauela; Kruzesen leku gabe; eta Galdakaon hospitale berri bat eraikitzeke direla...

Osasuna defendatzea, funtsezkoa dela, kontsideratzen duen herriaren sektore batek, gertatzen dena ezagutu eta gauzak argitu nahi ditu.

Orain dela aste batzup hauzo elkarte-koek hitzaldi bat eman zuten Basaurin eta hantxe azaldutako ideia batzu ere agertuko ditugu baliogarri izan dakizkiguke eta...

Astiro astiro, herriak, medikuntza integral baten premia nabaritzen du, eta zer esanik ez, asistentzia egoki bat eskatzen badugu, prebentzioa eta birmoldatzea kontutan hartzen dituen medikuntza baten alde, burrukatzen hasi behar dugula.

Hauzategietatik, osasunaren alde ekin ahal izateko, medikuntzaren planifikazio eta programazioen, kontrolatzeko ahalmena eskuratuz joan beharko da.




Gaixotasunaren zergatiak, ingurunea aztertzea eramango gaitu, eta honela pertsona baten osasuna neurtzeko, hainbat faktore hartu beharko lirateke kontutan. Ingurugiroak baldintzatzen baitu gizona. Osasuna ala gaixotasuna noiz dagoen adierazteko osasunaren kontzeptu ekologikoak, gizoria ingurugiroari egokitzen zaion neurria edo maila nola-

polizia harmatuarentzako koartela —eta hemen parentesis labur bat egingo dugu, koartelerako lur-eremua Basauriko herriak atsedenerako, hau da, berdegunerako inpugnatua baitzuen. Caja de Ahorros Municipal eta Vizcaya-k Ministerio del Interior”i saldu egin dio lurra eta gunearen berkalifikatzerik ez da egingo. Ez Basaurik ez Euskal Herriak behar ez dituen 1.000 edo 5.000 gris gehiago...—, zaborrak edo hondakindegia nonnahi ikus daitezke (Basauriko hauzategietan). Eta honek arrisku izugarriak dakartzkigu; ez bakarrik haurrek bertatik ibiltzean har dezaketen infekzioengatik, euriaren urak zaborretan zehar pasatzean eramango dituen germenek kutsadura lurrera joango da, handik ortuarietara, eta ziklora. Zaborrek sortzen duten giro agresiboa ere azpimarratu behar da.

Eta aipatzekotan, trafikoko istripuengatik oso famatua den “zubi berria” —espaloia gabeko zubia—, eta trenbidearen pasabidea ere aipatu behar dira. TUGB-SAko autobusen funtzionamendu eskasa, Anaitasunatik ere salatua izan da.

Honek guztionez, osasuna determinatzen du ezinbestean. Basauriko anbulatorioaren kontsuluten kopurua hartu eta gehien gertatzen diren gaixotasunak; arnasarenak, lokomotorre-aparailuarenak, bihotz eta zainetakoak, digestio aparailuarenak eta sikikoak dira.

komikia



"egant"
"magte"
"gembat"



GAIA: B. Handia - J. Etxenike
IRUDIAK - J. Etxenike

Zenbakien erabilera (I)



Gauza ezaguna da, euskaldun askok zenbakiak euskaraz erabiltzeko ohi duten alferkeria. Sarri, dendetan adibidez, euskara hutsez hitz egiten aritu izan direnak, erdarara jotzen dute, kontuetako zenbakiak zehaztasunez adierazteko. Eta, gaur eguneko mundu teknifikatuan, hori penagarria da.

Zenbakiak leku eta une askotan ageri ohi zaizkigu; hainbat eta hainbat gauza zenbakitu eta kuantifikatu egiten baitira. Horregatik, ba, interesgarri gerta daiteke, zenbakiak euskaraz erabiltzean —bai idatziz eta bai irakurriz— sortzen diren zenbait problema aztertzea.

Zenbaki kardinalak eta deklinazio-atzizkiak

Dakizuenez, euskaraz deklinazio-atzizkiak erabiltzen dira. Eta zenbakiak ez dira horretatik libratzen. Dena den, idaztean, zenbakiak bi modutara adieraz daitezke: zifren bidez eta letren bidez. Esate baterako:

15 edo hamabost.

Letren bidez idaztean, beste hitz guztietan bezala jartzen dira deklinazio-atzizkiak, loturako dauden arauak segituz. Adibidez, aurreko zenbakiarekin honelako formak agertzen dira:

MUGAGABEA	MUG. PLURALA	MUG. SINGULARRA
hamabost hamabostek hamabosti hamabosten	hamabostak hamabostek hamabostei hamabosten	hamabosta hamabostak hamabostari hamabostaren
hamabostetan hamabostetara hamabostetako	hamabostetan hamabostetara hamabostetako	hamabostean hamabostera hamabosteko
hamabostengan hamabostengana	hamabostengan hamabostengana	hamabostarengan hamabostarengana

Aurreko koadroan ikusten denez, mugagabeko eta mugatu pluraleko forma baten berdin idazten dira; praktikan, hitz egitean, azentu desberdina dute ordea: Mugagabeen hamabostek eta mugatu pluralean hamabostek, adibidez. Beharbada, baten bat harritu egingen da, zenbaki hori mugatu singularrez ere erabiltzen delako; baina hori gertatzen da, zenbakia zerbait izendatzeko erabiltzen denean (egun bat, pertsona baten izena...). Adibidez, hor dugu kasu hau: urriaren hamabosta.

Zer pasatzen da, ordea, zenbakiak zifrez adieraztean? Zer esanik ez, orduan ere idatzi behar da atzizkia. Baina, nola? Joera desberdinak egon dira zifrak eta atzizkiak lotzeko. Batzuk apostrofua erabili izan dute:

15'ean, 15'etik.

Beste batzuk, gidoia:

15-ean, 15-etik.

Hala ere, Euskaltzaindiak aspaldu hartu zuen erabakia arazo honetaz (ik. EUSKERA XVI, 1971. urtea). Eta erabaki horretan, modurik sinpleena eta egokiena aukeratu da: zifra eta letrak elkarren ondoan jartzea, tarteko markarik gabe. Honela, hain zuzen ere:

15ean, 15etik.

Edozein modutan, honela egitean, beti eduki behar da kontutan zenbakiaren bukaera, atzizkiak hartzen duen forma osoa (loturazko letrak barne) idazteko. Adibidez:

Noiz? 11n, 12an, 13an, 14ean, 15ean, 16an,...

Zenbaki ordinalak

Zenbaki ordinalak ordena adierazten duten zenbakiak dira. Kontzeptu hori adierazteko, euskaraz -garren atzizkia erabiltzen da. Eta kasu honetan ere, antzerako problemak sortzen dira letraz edo zifraz idaztean. Letren bidez idaztean erraz gertatzen da:

hogeigarren, seigarren,...

Zifraz idazterakoan, joera desberdinak egon dira eta orain ere zenbait kasutan ikusten dira:

20garren, 20gn, XXgn.

Dena den, horretaz ere Euskaltzaindiak ba du bere erabakia: zenbakiaren ondoan puntu bat jartzea. Honela, prezski:

20., 6., XX.

Bestalde, -garren atzizkiak osoturiko multzoak, ba du bestelako deklinazio-atzizkiak hartzeko posibilitatea; eta atzizkiok, lehenago esan bezala, inolako loturazko markarik gabe jartzen dira: hogeigarrenaren = 20.aren.

Eguna adierazteko moduez

Gure kultura barneko harremanetan, askotan erabili behar izaten da egunaren adierazpena: gutunen goikaldean, jaialdi edo egintza publikoen iragarkietan, komunikatuen behelaldean eta abarretan.

Eguna adierazteko, bi modu nagusi daude, bakoitzak galdera bati —erreal edo hipotetikoa— erantzuten diolarik. Adibideak jarritz, hauek dira moduok:

1. Zenbat dauzka hilak?

Abenduak 9 dauzka = Abenduak 9.

2. Zenbatean gaude?

Abenduaren 9an gaude.

Izatez, forma biak dira jatorrak. Dena dela, eta zergatik den ez dakidalarik —beharbada, erdararen formatik desberdinagoa delako edo—, idazle askok maiteago dute lehen forma. Ene ustez, ostera, bigarrena askoz ere praktikoagoa da; eta horrela uste badut, 2. formak deklinazio-atzizkiak hartzeko eskaintzen duen posibilitateagatik da. Adibidez, era honetakoak esan daitezke:

hilaren bostetik aurrera

urriaren 13rarte.

Ordea, ez dut uste zuzenegi denik, ondoko formakoak jartzea:

abenduak 26an (!?)

urriak 5etik aurrera (!?).

Laburki esanik, egokiago ikusten dut bigarren aukera, flexibilitate handiagokoa delako.

Edozein modutan, egunaren izendapena zifra hutsez, letra hutsez edo eta letrak eta zifrak konbinatuz egin daiteke. Beraz, ondoko modu guztiok balioki-deak dira:

a) 1978 - XII - 12

b) 1978.eko abenduaren 12a

c) 1978.eko abenduak 12

d) Mila bederatzihun eta hirurogei eta hamazortzigarreneko abenduaren hamabia

Ohar gisa, zenbaitzuk urtea ez dutela ordinaltzat hartzen esan behar da. Eta hori ere posible da; hau da, 1978.eko idatzi ordez 1978ko idaztea.

J. R. Etxebarria

GURUTZEGRAMA

1	L	I	2	I	A	F	5	A	6	7	C	8	O	N	9	I	10	7					
	O		"	I	T	O		12	2	A	O	S		13	E	T	A	14	7				
15	N	16	K		17	U	R	18	B	A	I	N		19	O	S	O	K	I				
20	G	A	21	U	R		I		N		22	Z		K				R					
23	A	N	T	I	24	J	O	R	25	G	26	A	I	27	L	28	U	29	A				
	A		29	N	E	T	U		30	I	R	O	L	E	31	A	N						
32	P	R	33	A	G	A		34	H	F		R		T		36	M	I					
37	A	I	T	O	N	38	A	R	E	N	I	P	U	I	A	K							
42	J	A		A		N		43	Z	E		44	U	R	A	N	O						
46	O	K	47	A	R	48	A	N	A		49	7	50	R	I	G		D					
L		51	D	O	M	I	N	52	G	O	A	G	I	53	R	R	E						
I			T		E		R		N		55	N	O	E	L								
56	N	57	A	58	U	Z	U		59	B	A	60	R	D	61	O	T	62	A	63	U	I	
64	I	N	K	A		65	R	E	N	O		66	I	Z	67	U	I						
	68	A	I		69	T	H	E	O	D	O	R	A	K	I	S							

19.

20. ZENBAKIA


LUZETARA: 1.-Nafarroako errege (970-994) (3 hitz). 12.-Ixilik! 13.-Ipar aldean, hiru; hego aldean, 14.-Erbio (symbolo khimiko). 15.-Iridio (symbolo khimiko). 16.-Euskal Herrian, askotan urdin. 18.-Jupiter-en satellite bat. 19.-Nevada-ko Unibertsitatea non den; euskal estudieta-ko programa dute han. 21.-Zink (symbolo khimiko). 22.-*Anaitasuna*-ren sortzailea (izen osoa; 2 hitz). 25.-Gaztetxea. 26.-Jan (ingelesez). 27.-..... egin (ezeztu). 28.-Vietnam-en hiriburua. 30.-Astato (symbolo khimiko). 31.-Antza, irudia. 35.-Germanio (symbolo khimiko). 37.-Nafarroako euskalari (izen osoa; 2 hitz). 40.-Galdetzeko partikula. 41.-Boxeo konbat baten atal. 42.-Atzizki plurala. 44.-Ezetz esan. 47.-Solido, likido, ala 49.-"Nere hil zait, lanak itota." 50.-Amorde. 54.-Euskara zer den, Michel Labeguerie-ren eritziaz (2 hitz). 56.-Atzizki partitiboa. 57.-Dut (hiketan). 58.-Egin (forma laburra). 59.-Jausi (infinitiboa). 60.-Atzizki alatiboa. 61.-"Gabe" adierazten duen aurizki. 62.-Orain (bizkaieraz). 64.-*Happy*, Brecht eta Weill-en teatro bat. 65.-Plan gabe lan egiten duen pertsona.

1		2	3	4		5	6	7		8	9		10	11
		12				13				14			15	
16	17			18			19	20					21	
22			23										24	
25							26						27	
							28					29		30
		31	32		33	34				35	36			
37							38			39				
		40						41						
42	43		44	45		46								
47		48		49				50	51		52		53	
54			55											
56			57					58			59			
60			61			62	63				64			
65														

20.

GOITIK BEHERA: 1.-"Euskal abertzale-
tasunaren aita" (izen osoa; 3 hitz). 2.-
Lantua. 3.-Asia-ko herri handiena. 4.-
Ixilik! 5.-Semearen semea. 6.-Kasik. 7.-
Aitzina. 8.-..... Lertxundi, kantaria. 9.-
Koroa. 10.-"Futuroa" adierazten duen
atzizki. 11.-Euskal poeta; euskal literatura-
ko lehen laikoa (1592-1667) (izen osoa; 2
hitz). 17.-Emakumezko. 18.-Yul Brynner-
ek ez duena. 20.-Mendebaldean, Barakal-
do; ekialdean, 23.-Milton, Amin-
en aurreko Uganda-ko lehendakaria. 24.-
Euskadi Askatasuna. 29.-Gora joan.
32.-Eskimalearen etxe. 33.-Ongailutzat
erabiltzen den horria. 34.-Urrea (symbolo
khimiko). 36.-Zati bitan (2 hitz). 38.-Ipar
aldean, r eta nahasten dituzte. 39.-
Gogaide, alderkide, jarraitzaile. 43.-
Frantses dantza "gaizto". 45.-Joko-etxe.
46.-Basa-zuhaitz edo pertsona handi. 48.-
..... Pee (Senpere, frantsesez). 50.-Zsa Zsa
Gabor-ena sekretua da. 51.-Eskurakoi.
52.-Kastratua. 53.-Número (onena).
55.-Idiak bi ditu buruan. 63.-Estatu
Batuak (irrelesazko inzialak).

Larry Trask



LABYRINTOIA (2)

Oraingoan ez da tranparik. Labyrinto honek ba du irtenbiderik. Lapitza edo boligrafoa har eta, pazientzia pixka batez, helburura joango zarelakoan gaude. Ez dago zergatik.





Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko proiektzio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitez. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago.

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

Zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

Zeruko
ARGIA